


uk

119. zenbakia / 2007 maiatzak 21



Leioan...



egin behar dugu



Eneko Arruebarrena Elizondo

Leioako Alkategoko.



egin behar dugu



UK galeria > Iñaki Izquierdo Muxika



Informazio Zientziak ikasi zituen Leioan Iñaki Izquierdok (Portugalete, 1965). Garai hartan hain zuzen ere hasi zen fotografia ikasten. Laster Sestaoko Argazki Taldean sartu zen eta gaur egun arte bertan garatu du bere lana. Bere burua argazkilari dokumentalistatzat jotzen du eta industria eta Ezkerraldearen aldaketa dira gehien jorratu dituen lanak. *Meagintzaren irudiak* deitu zen bere lehenengo lana. Behar horretan Bizkaian irauten zuten meagintzaren arrastoak bildu zituen. Lan hau, egin izan dituen besteak bezala, makina bat lekutan erakutsi zuen. Orain dela gutxi *Sestaon biziz* lana burutu zuen (aldizkari honetan lagin bat argitaratu genuen). Bertan garai baten (industrial) bukaera jaso zuen. Erakusketa ezezik liburu ederra ere argitaratu zuen argazki haiekin.



Sestao

«Agindua zor» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Unai Basurko, Willy Uribe.
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri 1975-2007.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. ERRETRATUA. Jimmy Gadman, Maitane Nerekan.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Sopela 17. Erandio 19. Leioa 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Kantuketan 2007, Asier Mentraka.
28. ERREPORTAJEA. Berangoko gauak, Unai Brea.
30. ARGAZKIA. Hegan Leioan, Alex Mosterin.
32. FOTOGRAFIA. Getxoko jaiak iruditán, Mikel Martínez de Trespuentes.
41. BERBETAN. Edurne Ormazabal, U. B.

KULTURA ETA AISIA


44. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Euskal zinea paperera.
45. MUSIKA. *Euskaldunak a capella* lana. Diskoen erreseinak.
48. LIBURUAK. Literaturgile unibertsalak euskaraz. Liburuaren erreseinak.
49. KIROLAK. Getxo kirol markadunak.

EUSKARAZ

51. ELKARRIZKETA. Jesus Maguregi konpositorea, Oiane Moran.
52. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

53. NORA JOAN?. Adilbidez, Algortako Due taberna berria.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Portu Zaharreko mojen ikastetxea 1928an, Bittor Egurrola.
58. AITORMENAK. Txuma Murugarren, Maitane Nerekan.



41 Edurne Ormazabal



10 jimmy Gadman

Berbetan


Tolosarra. Oso gaztea zela sartu zen komunikazioaren munduan. Orain dela hamazortzi urte, hau da, sortu zenetik, *Euskadi Gaztea* irratiko arduraduna da.



30 Leioan hegan



32 Getxoko jaiak iruditán



19 Sophie Stramb



59 Txuma Murugarren

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuba 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentakia
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Eguncia,
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amozaga, Itsaso Arana,
Gaizka Escudero, Akaizte Kamirua, Amaia Arriaga, Berbots Erandion
Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea,
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen topaguneko partaidea da.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Lau urte eta gero

Azken udal hauteskundeak orain dela lau urte egin ziren. Orduan *Gu geu* txoko honetan idatzi genuen testu bera ekarri dugu berriro ere ataltxo honetara. Honela zioen:

“Demokrazia antzinako greziarrek asmatu zutela irakatsi ziguten eskolan. Berba bera ere greziar jatorrikoa ei da: demokrazia, “herriaren agintea”. Gure garaiko gizarteetan, antzinako greziarren asmakizun hura hauteskunde jantziz ageri zaigu; kristalezko kutxa batean paper batean sartzeko ahalmena bide da herriaren botere-modurik onena, hoberik asmatu bitartean behintzat.


Aurreko guztia esatea alperrikakoa dela esan dezake nork edo nork. Gauza jakinak dira-eta! Bada, laster hauteskundeak egingo dira Euskal Herrian. Hauteskunde horiek baina, ez dute zerikusirik edukiko goiko paragrafoan azaldutako printzipioekin. Hauteskunde horiek ez dute herriaren subiranotasuna ziurtatuko, herriaren zati handi bati askatasunez aukeratzea galarazi diote eta.

Ez da UK-ren estiloa alderdi politikoez berba egitea, ez eta ideologia baten alde edo kontra egitea, baina argi daukagu guztientzat aukera berdinak egon behar direla eta hori ez da gertatuko maiatzaren 27 honetan. Izan ere, kutsu politiko nabarmena daukan erabaki-sorta judizial baten bidez hankamotz utzi dituzte eta”.

Tamalez, berdin-berdin segitzen dugu.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

jaso dugu >

Bertsolari gazteak

Algortako Bertsolari Eskolaren (ALBE) ekimenez, Getxo, Algorta, Neguri eta Itzubaltzetako bertso-eskoletako neska mutilak bildu ziren maiatzaren 10ean. Jaialdia aprobetxatuz, Balendin Txiki bertso-paper lehiaketako sariak banatu zituzten ALBEkoek. Azpian, irabazleen famili argazkia.



ALGORTA, 2007KO MAITZAREN 5A

Marinela etxean dago ostabere / *Pakea* itsasontzia utzi eta lehenbiziko aldiz lurra zapaldu zuenean, Ameriketatik urten zuenetik ez zuela lurra ikusi esan zuen hunkituta Portugaleteko Unai Basurkok. Horrela, lanbroagatik, ikusi zuen aurreneko gauza bere etxea, Euskal Herria, izan zela kontatu ei zien marinelak harrera egin ziotenei. Txapela jantzita, pozik egin zituen itsasadarreko azken metroak. Ez da gutxiagorako ere, 158 egun eman ditu-eta ozeanoan bakar-bakarrrik. ○ / Argazkia: **Willy Uribe**

BAPIRUKA

BAPIRUKA UDALEKU IREKIAK

EKAINAK 25-29 / UZTAILAK 2-13 / 3. UZTAILAK 16-27

TOKIA // 1.GO TXANDA: ALDAI PATRONATUAN / 2. ETA 3. TXANDA: ZABALAN, ERROMO ETA GEROA

NORENTZAT: 5 eta 12 urte arteko ume euskaldunentzat // ORDUTEGIA: 9:00-13:30; irteera egunetan 17:30ak arte.

PREZIOA: bazkideek: 1.go bandan: 55€; 2. eta 3.bandan 95€ / Ez-bazkideek: 1.go bandan: 70€; 2. eta 3.bandan 120€.

IZEN EMATEA (ezin da telefonoz egite): Inskripzio orria bete behar da eta osakidetzako txartelaren kopiarekin eta ingresoraren ziurtaginarekin batera bulegora ekarri: Kantitatea: 1, 10, Bulegosa. // IZENA EMATEKO EPEAK: BAZKIDEAK: Maiatzaren 1-etik 25era (Astele, Asteaz. Oste. 15:00-19:00; Astea. Osi. 10:00-13:30) / EZ-BAZKIDEAK: Maiatzaren 28tik 31ra (28,30,31,616:00-19:00; beste egunetan 10:00-13:30)







GETXO UDAL LEBURUTEGIA



ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / NEGURI 1975-2007

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > balizko alkate



Algorta, 2007

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

- I**

Einstein izango balitz
Getxoko alkate
dena erlatiboa
bihurtu liteke.
- II**

Mañu izango balitz
guaitoen alkate
Euskara Zerbitzuan
Wazemank legoke.
- III**

Elsa Pataky balitz
bertako alkate
getxotar izatea
nork ez luke maite?
- IV**

Getxon sekula balitz
Guzurti alkate,
esanda ere, inork
sinetsiko luke?
- V**

Getxon jarriko balitz
Pantoja alkate
Marbella ez zen izango
horren disparate!
- VI**

Getxotar on bat balitz
Getxoko alkate
ez zen egongo ez SPA
eta ez PTP.

* Doinua: Aritmetika arazoak

AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

natura > erleen desagertze misterioitsua mundu osoan



Polinizazio prozesuan animaliarik garrantzitsuena da erlea

Erleak mundu osoan desagertzen ei dabilta. Hori da, behintzat, adituek diotena. Larri agertu dira; izan ere, animalia txiki horiek berebizikoak dira ingurumena gaur ezagutzen dugun moduan mantentzeko. Polinizazioaren %80 erleek egiten dute, beraz, horiek desagertuko balira, landareen ekosistema erabat aldatuko litzateke. Ondorioak alde batera utzita, desagertzearen arrazoiek misterio handiena izaten jarraitzen dute. Ikerlariak hainbat hipotesi darabilte: *varroasis* deituriko gaixotasuna, pestizidak, telefono mugigarrien uhinak... Baina bitxia dena: ez dute erleen gorpurik aurkitu. Oraingoz, AEBetan izandako kalteak zenbatu dituzte: milioi erdi kolonia galdu da (50.000 erlegaz bakoitza). Euskal Herrian gertatzen dena, berriz, ikusteko dago. Einsteinek behin esan zuen erleak akatutakoan gizadia desagertuko zela... ○

euskara > bost urte bete ditu *bizkaie!* aldizkari elektronikoak



www.bizkaie.biz

Bizkaie! bizkaieraz idatzitako aldizkari elektronikoak bost urte betetzen ditu aurten eta horren harira, tarte horretako corpora jasotzen duen CD berezia aurkeztu zuten joan den maiatzaren 10ean, Bilboko FNAC dendan. *Bizkaie!*-k 2002tik 2007ra bitartean argitaratutako guztia eskura egongo da CDan: webgunea, datu-baseak, bilatzeko sistemak... Bizkai Alkarte Kulturalaren bitartez sortutako webgunea da Bilboko Txurdinaga auzoan bulegoa daukan *Bizkaie!*. Aldizkarian hainbat gai jorratzen dituzten artikulua irakur daitezke, guztiak bizkaieraz idatzita: kultura, zinea, musikea, euskaldunok munduan, antxina-barri, agendea... Era berean, asko dira proiektuan parte hartzen duten euskaltzale entzutetsuak: Zigor Aldama, Xabi Paya, Erramun Osa, Amaia Laforga, Rafa Rueda, Larraitza Artetxe, Amaia Ormaza eta beste asko. ○

siaz getaria

HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa

...haria

...lehengo garaik...

...itsasa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[erretratua]



“Udalak atera zuen egutegi batean agertu nintzen eta ume guztiek nire argazkia eskegi zuten euren gelatan. Horrelako gauza txikiek hunkitzen naute”

Jimmy Gadman > Zubilleta eskolako behargina

“**Badator Jimmy !**” oihukatzen dute umeek eskolako atetik sartzen dela ikustean. Ghanakoa (Afrika) da Jimmy Gadman, baina dagoeneko 23 urte eman ditu Algortan. Oso gustura dago hemen, ez omen du familia faltan sentitzen: “*Hemengo lagunak nire familia bihurtu dira; gainera, semea nirekin daukat*”. Getxon gehien gustatzen zaionari buruz galdetzean ez daki zer erantzun: “*Paisaiak, jendea, giroa, hondartzak... dena dut gustuko!*”. Arazo bakarra hizkuntza da: “*Aditzak nahasten ditut oraindik*”. Euskara ikasten saiatu zen aspaldi: “*Ziur nago kalean hitz eginez gero errazago egingo zitzaidala euskaraz ikastea*”. 13 urte pasa dira Zubilleta eskolan lanean hasi zenetik: “*Eskerrak eman behar dizkiet Zubilletako guraso eta langileei; izugarri lagundu zidaten gehien behar nuenean*”. Lan nekeza dela onartzen duen arren, ondo baino hobeto moldatzen da ume artean: “*Udalak atera zuen egutegi batean agertu nintzen eta ume guztiek nire argazkia eskegi zuten euren gelatan. Horrelako gauza txikiek hunkitzen naute*”. Kirolak betetzen du, baina, bere denboraren parterik handiena. Unibertsitate garaian saskibaloia jokalaria izan zen Ghanan eta hemen 15 bat urte darama entrenatzaile lanetan. Aurten Zubilleta eta Azkorriko neskak entrenatzen ditu: “*Beisbol taldea ateratzen saiatu ginen, baina ez genuen jende nahiko bildu*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Getxo EgitEA

EGINGO DUGU LAN

- ✓ ETXEBERTZAK GETXOKO GAZTEENTZAT
- ✓ GIZARTERAKTEA
- ✓ ELKARBEZTZA ETA ELKARTASUNA
- ✓ HERRI GAIARPEN HARMONIKOA ETA IRAGUNKORRA
- ✓ BERKANTASUNA KULTURARI ETA KIROLEAN
- ✓ ARDIALDIA, PRESTAKUNTZA ETA GAZTEENTZAKO LAGUNTZA
- ✓ EUSKARAREN SUSTAPENA
- ✓ GUTTIEN ARTEKO BERKANTASUNA

TRABAJAREMOS

- en base a:
- ✓ VIVENCIAS PARA LOS JÓVENES GETXOTARRAS
 - ✓ INTEGRACIÓN SOCIAL
 - ✓ CONVIVENCIA Y SOLIDARIDAD
 - ✓ DESARROLLO URBANO ARMÓNICO Y SOSTENIBLE
 - ✓ EXCELENCIA CULTURAL Y DEPORTIVA
 - ✓ OCIO, FORMACIÓN Y APOYO A LA JUVENTUD
 - ✓ FOMENTO DEL EUSKERA
 - ✓ IGUALDAD ENTRE TODOS



JOSÉ RAMÓN BILBAO AZKUE
Getxoko Alderetzarako hautagaitza
Candidate a Alcalde de Getxo



VILLAMONTEKO
ESKAILERA MEKANIKOEN
EGITASMOA HOBETSITA

Getxoko Udalak Villamonteko plaza eta Algortako metroko geltokia lotuko dituen eskailera mekanikoen eta igogailuen egitasmoa onartu du. Eskailera mekanikoko 2 gune (goranzko bidean bakarrik) eta 2 igogailu ipiniko dituzte. Egitasmoa behin betiko onartu eta gero, lanak egingo diren lurrak “atoan eta derrigorrez desjabetuko” lituzke Udalak; eremu horren ugazaba Villamonteko Auzotarren Komunitatea da. Eskailerak eta igogailuak 2008ko udan abian egon litezkeela aurreratu dute arduradunek.

ANDRA MARI ELKARTEAK
EGOITZA ITXI DIOTELA
SALATU DU

Andra Mariko Auzotarren elkarteak prentsa oharrez jakinarazi duenez, “1978tik elkarte horrek erabiltzen duen egoitza itxi du Udalak”. Oharrak dioenez egoitzan duten dokumentazioa ezin dute berreskuratu eta “Udalak ez die lokala uzteko eperik eman; zuzenean zerraila aldatu dute”. Andres Uriarte zinegotziak “lokala erabiltzeko baimena ez dutela” esandakoaren aurka agiririk ezin dutela aurkeztu azaldu dute dena egoitza barruan dutelako.

JUSTIZIA JAUREGIA
HANDITUKO DUTE

Udalerriko Justizia Jauregia handitzeko HAPOren beharrezkoak ziren aldaketak onartu ditu Getxoko Udalak. Eraikiko duten hegala berria 3 epategi berri lekutuko dituzte, eta eraberritze lanen ondorioz bi sarrera egingo dizkiete, publikoarentzat eta langileentzat bana.

Larrañazubiko Ingurumen Aretoak
datorren ikasturtera arte ez ditu ateak irekiko



Ingurumen Aretoa bisitatzean alboan dauden Transfer planta eta Garbilekua ere ezagutu ahaliko dira

Larrañazubiko udal zaborteği ohiaren alboan zegoen baserria zaharberritu eta Ingurumen Areto bihurtu du Getxoko Udalak. Honezkerok martxan egon beharko luke baina azkenean 2007-2008 ikasturtearen hasieragaz batera zabalduko ditu ateak Ingurumen Aretoak. Gainontzeko herritarrek alboratzen ez baditu ere, batez ere hezkuntza zentroei begirako zerbitzua eskainiko du Aretoak, hala ingurumenaren gaineko hainbat esparru landuko dituzte bisitariak. Sarrera doakoa izango da eta jai egun berezietan izan ezik gainontzeko egunetan zabalik egongo da. Hiru ataletan banatu dute eraikina. Lehenengoak Getxoko

biodibertsitatea (landazabal Atlantikoa, kostaldea eta Bolueko hezegunea) erakutsiko du horma-irudien bidez, horren albotik kanpoaldean udalerriko eta inguruetakok landare eta fauna ezagunenakaz osatutakok lorategi botanikok bat antolatuko dute. Bigarrenak erakusketak baten bitartez ingurumenarekikok arazoak eta ekimenak azaltzen ahaleginduko da (hondakinen arazok, uraren kudeaketa, aztarna ekologikok, Agenda 21...). Azkenik, hirugarrena aisialdirakok gunea da (jolasak, jatekoko mahaiak...). CESPA enpresak kudeatuko duen Aretoak 1.400.000 eurokoko kostua izan du. ○

Julio San Roman > Atfal elkartekok zuzendaritzakok kidea

“Saharar herriak nazioartekok legeak bete ditubeti, ostera nazioarteak ez dituberespetatu”



Harremanetarako: 658 751 359 / atfalgetxo@gmail.com

1997an sortu zen Sahararen aldeko Getxoko Atfal elkarteak; hamarkada bat egin du saharar herriaren eskubideak aldarrikatzen, egoera latza salatzen, laguntza bidaltzen... Urteurrenaz, gaurko egoeraz, umeak ekartzeaz... jardun du Julio San Roman elkartekok kideak.

—10 urte eta denak berdin jarraitzen du. —Saharako herria errefuxiatuen kanpamenduetan bizi da, okupatutakok lurraldeetan errepresio itzelak jasaten du; sahararrek beti errespetatu izan dituzte nazioartearen legeak, ostera, arrazok ematek berba politikak bai, baina inork ez du gaitzespen irmorik egin, ezta sostengu edota babes irmorik egin, are gutxiago hori egin beharko luketen Estatu erantzuleek! Nazioartekok legea sahararren alde dago, baina nazioarteak berak ez du errespetatzen ez betetzen. Egoeraren erantzule barek, Espainiakok Gobernuak hobetsi egin du Marokok NBERi aurkeztu berri dion Autonomia proposamena; horrek nazioartekok legedi oro urratzen du, beraz Espainiakok Gobernuak ere legedia urratzen du. —10 urte. Ba al dago ospatzekok zerbaite? —Elkarteak bizirik iraun du, jendearen laguntza ez da eten, hazi baino; ekintzak egitekok indarra oraindik ere badugu (umeak

udaldian ekartzea, elikagaien eta bestelakoek karabana, herri lasterketa, Sahara Egunak, elbarrien eta Emakumeen Etxearen egitasmoak...), horrek zelanbaite pozten gaitu! Herritarrei zera eskatu gura nieke: umeak gure etxeetara ekartzekok gehiagok animatzea, gehiagok etor daitezzen. Halere, elkarteak sortzearen zergatiak eta auzi injustuek hor diraute, hori konpontzekok egin behar dugu lan. —Umeak ekartzearena onuragarria den zalantzan daudenei, sufrimendua handitzea dela diotenei... zer esango zenieke? —Beldurra denok dugu. Haurren familia egonkortasuna eta egonkortasun emozionala han oso ona da, gurea bezainbeste; sendien batasuna indartsua da. 7-12 urte bitartekok umeak ekartzen ditugu eta adin tarte hori aukeratzea ez da hautu zentzubakok, bere familiaren ondora itzultzekok gogok eta beharra ez dute galtzen, nik uste, horregatik pozik itzultzen direla etxera. Guk pentsatu behar dugu 2 hilabetez elikadura egokia izango dutela, osasun azterketak egingo zaizkiela, beraz urte gehiagok bizi ahal izango dutela. Han elikadura oso kaskarra dute, oraintsu heldu zaie Euskadikok karabana, baina hori petatxu bat baino ez da, nazioartearen laguntzen mende bizi dira! Ume gehienek desnutrizioa dute, %70ak anemia, eta ondorioz gaixotasun latzak. Hemengo erosotasunak agian eta familia faltan botakok dituzte, baina euren familia beharrezkoko dute.

«Saharar herriaren ordezkari diren umeek eskubideak aldarrikatu behar ditugu»

—Eta etorkizuna? Beltza, grisa... ala... —Itxaropena ia da galtzen azkena; Saharar herriak ere ez du galdu 30 urteotan emandakok egurra eta jasanarazitakok jipoien ostean ere! Lagun diezaiegunk! Saharar herriaren ordezkari diren gurera datozen umeek esku-bideak hemendik aldarrikatu behar ditugu, euren herri eta lurretara itzultzearen alde borrokatu, eskubide guztia dutelako! ○

356.851 euro

38 lankidetzak proiektutarako

Getxoko Udalak 356.851 euro banatu ditu aurtan 38 lankidetzak proiektuaren artean. Diru-laguntza jasokok duten proiektuen artean 26 garapen lankidetzak alorrekoak dira, beste zortzik heziketa eta sentsibilizazioa landukok dute eta gainontzekok laurek larrialdi eta laguntza humanitarioa lantzekok egitasmoak dira. Udal arduradunek adierazi dutenez Asia eta Afrika jomuga duten proiektuak gehiagok dira aurtan (10), halere proiektu gehienek helburua oraindik ere Erdialdekok Amerikakok herriak dira.

Bestalde, Udalak 78.201 eurokoko laguntza humanitarioa zuzendu du Nikaraguakok Tipitapa herrikok (Managua departamendua) Turin Ordonez auzoan euri-drainadura sistemarakok lanak egiteko. Laguntza ematearen arrazokia Udalak eta Euskal Fondoak (Euskadikok Herri Erakundeek Lankidetzarakok Elkarteak) 4 urterakok berretsi duten hitzarmenagaz lotuta dago. Bestalde, udal arduradunek gogoratu dutenez Tipitapa herriak 2002-2007 bitartean 290.688 eurokoko laguntza getxoxtarra jaso du. ○

Eskulangintza azoka

Ekaineko lehenengo aste-akabuan **111 artisauk** hartuko dute parte eskulanen merkatu handian



Euskal Herri osotik etorriko diren artisauakaz batera Irlanda, Portugal eta Italiakoak ere egongo dira Getxon

Hemendik bi aste barru inguru, ekainaren 1etik 3ra hain zuzen, egingo da Kultur Etxeak antolatutako Eskulangintza Azoka. 24. urtea beteko du aurten azokak eta bi berrikuntza iragarri dituzte antolatzaileek: azokarako sarrera doakoa izango dela eta karparik ez dela egongo (artisauek etxola bana edukiko dute).

Ohi legez bitan banatuko da azoka: gastronomiaren gunea Ibaiondo kalean lekutuko dute eta gainontzeko eskulangintza postuak Areetako Geltoki plazan lekutuko dira. Gastronomia alorrean 14 artisauk ipiniko dituzte euren jakiak gozagai eta salgai, eta gainontzeko 97 eskulaginleek hamaika motatako lanak jarriko dituzte eskuragarri, berbarako: egurrez, beiraz, larruz, metalez, harriz zein paperez egin-

dako ekoizpenak; horiez gain bitxigintza, galdaragintza, kandelagintza eta heraldika lanak ere egongo dira salgai. Antolatzaileen esanetan eskulangintzako 20 esparru baino gehiagok izango dute ordezkaritza Areetako plazan. Euskal Herri osotik etorriko diren artisauakaz batera Irlanda, Portugal eta Italiatik Getxoraino bertarutako direnak ere egongo dira.

Bestalde, urtero legez bi sari emango dituzte eta zozketa bat prestatuko dute antolatzaileek. Bi sariok eskulangileen lana eta erakusmahaien aurkezpen onena sarituko dituzte; eta bestetik, hainbat artisau-lan zozketatuko dituzte azokako erosleen artean. Amaitzeko, 10.000 katalogo argitaratuko dituzte azokan jardundako artisauren informazioagaz. ○

BAPIRUKEREN UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Bapirukek 5-12 urteko ume euskaldunei begira antolatzen dituen Udaleku Irekietan izena emateko epea zabalik dago; bazkide direnentzako hilaren 25era arte (astelehen, eguazten eta eguenetan 16:00-19:00; martitzen eta barikuetan 10:00-13:30), oster, bazkide ez direnentzako epea maiatzaren 28tik ekainaren 8ra bitartean izango da (28, 30 eta 31n 16:00-19:00, gainontzeko egunetan 10:00-13:30). Izena ematea Karitatea kaleko 1 zenbakiko 10. bulegoan egin behar da (ezin da telefonoz egin) eta beharrezkoak diren betekizun guztiak eroan behar dira. Hiru txandetan egingo dira udalekuak 9:00-13:30eko ordutegian: ekainak 25-29, uztailak 2-13 eta uztailak 16-27. Bazkide direnentzako prezioak hauek dira: 55 euro (1. txanda) eta 95 euro (beste biak); bazkide ez direnentzakoak: 70 euro (1. txanda) eta 120 euro besteak. Iaz 379 umez gozatu zuten Bapirukeren udalekuez.

Informazio gehiago: 94 491 43 57

KOLDO SERRA ALGORTARRAREN FILMA EMANGO DUTE GETXON

Bosque de Sombras Koldo Serra zuzendari algortarraren lehenengo film luzeagaz esango dio datorren urtera arte zine denboraldiari Zine-klubak. Kultur Etxetik iragarri dutenez maiatzaren 30ean, eguaztena, Serra bera egongo da Getxo Antzokian egingo den emanaldian eta eztabaidan. Ohi legez 19:30ean dago jarrita hitzordua eta sarrerak 2,90 euro balio du.

AQUARIUMERAKO SARRERA MERKEAGO

Getxoko Udalbatzak (PP eta PSEren abstentzioagaz) Getxo Aquariumeko sarrerak erdira jaistea erabaki du. Hala ekainetik aurrera prezioak hurrengoak izango dira: nagusiak 3 euro, taldeko bonua 2,5, ikasleek eta erretirodunek 2,5 eta umeek 2 euro.

Plaza Beltza elkarte > liburutegi altematiboa

“Edozer gauza **esateko** daukan edonork **ateak irekita** dauzka”



Plaza Beltzako kideek izen bereko lekuan egiten dituzte batzarrak

Datorren irailerako Sopelako liburutegi altematiboa martxan egotea espero dute Plaza Beltza elkarteak kideek. Orain dela gutxi sortutako kolektiboa da Sopelako Plaza Beltza eta bertako kideek iragarri dutenez, eguneroko informazioa zabaltzea baino, memoria historikoa berreskuratzea da euren asmoa. “*Gehienbat gai soziopolitikoak joriatuko ditugu*”, zehaztu dute. “*Informaziorik ez dagoela edo dagoena pentsamendu bakarra zabaltzera bidentuta dagoela ikusten dugu, hau da, informazio erreakzionarioa, multinazionalen zein enakundearen menpekoea. Desidiologizazio prozesu batean murgilduta gaudela ikusten dugu eta horri aurre egiteko ideia askoren inguruan berba egin gura dugu. Kolore askotako jendea gara, hainbat kolektibotan ibilitakoak eta gure formakuntza zabaldu gura dugu*”.

Liburutegia irekitzeko beharrezko duten material gehiena jendeak emandakoa izango da. “*Eskualdeko herritarrei gure proiektuaren berri eman diegu eta oso harrena ona eduki*

dugu”. Halere, hastapenak gatzak izango direla uste dute Plaza Beltzako gazteek, orain arte ez delako antzeko egitasmorik burutu eskualdean. “*Jendea ohitu egin behar da. Informazio aroan gaude, baina liburuak aztertzea ez da hain eroso. Kultura horregaz apurtzeko irakurzaletasuna bultzatu gura dugu*”.

Bazkidetza doan izango da, ahalik eta jende gehien izena eman dezan. “*Edozer gauza esateko daukan edonork ateak irekita dauzka*”. Izan ere, hainbat dira liburu-

«Desidiologizazio prozesu batean murgilduta gaudela ikusten dugu»

tegian landuko dituzten gaiak: historia, euskara, emakumea, sexualitatea, ekologia, herrien arteko gatazkak, euskal literatura... Hitzaldiak eta eztabaidak antolatzekeo lekua ere egongo da. “*Hartue-mana izan gura du eta bakoitzaren esperientziatik ikasi*”. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- *Taldeak, enpresak eta partikularrak*
 - *Eskolaz kanpoko ekintzak*
 - *Maila guztiak*
- *Ingelesa 3 urtetik aurrera*
 - *Talde txikiak*
- *Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak*

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO



- *Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa*
- *Irakaskuntza eta hezkuntza*
- *Informazioa eta partaidetza*
- *Eleaniztasuna*
- *Esperientzia eta berrikuntza*

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970az** geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**

ERANDION
EGINBEHARDUGU

eman botoa


www.eai-pnv.com


Mikel Añeta-Araunabeña Bustina
(Erandiko Alkotetarako Haulagaitza)



EGIN BEHAR DUGU

Erandia egin behar delako
Aste egin dogu, Baina honek ez dau orain eragirik
Erantzukizuna, GHIAGO egiteko da.
Berton bizi gure dazulako. Berton lan egin gure dazulako.
Zure bizitza bertan gaitzeko aukerak
erki gure dazulako. ZUK ESKATZEN DIOZUNA DALAKO.
Lortu dazulako, nire gogoan.
ETA LORTU DAGIZUN LANARI EKINEZ JARDUNGO DIT.
Horretarako aukertzen nar Erandiko Alkotetari lez,
Erandio hobetu eta aurrera egin ahal izateko beharrezkoak
diren ekimenak bultzatu behar direlako.
Hori dugu nire konpromisoa.

ERANDIO EGIN BEHAR DALAKO

[erandio]

Sophie Stramb > irudigilea

“Sandra Uve komikigile eta porno zuzendaria da nire erreferentea”

Izen horregaz ez luke inor Sophie Stramb Astrabudukoa dela asmatuko. Darabilen izen artistikoa da, Esther Alonso bezala agertzen da-eta paper ofizialetan. Halere, elkarrizketa honetan irudigileak egindako lanaren inguruan jardungo dugunez, lehenbizikoa erabiltzea gurago du gazteak. Agindutakoa beteko dugu beraz. Beste gauza askoren artean, Erandioko I. Komiki Lehiaketan lortutako akzesitaren berri eman digu Sophieak.

—Komikigilea zara zu?
—Lehiaketaren berri kasualitatez izan nuen. Komiki bat egiten dudan lehenbiziko aldia da. Reusen (Tarragona) bizi den lagun bategaz egin nuen, berak testuak idatzi eta nik irudiak egin nituen. Normalean irudi independenteak egiten ditut, eskuz; baina ez nuen inoiz komiki bat gauzatzeko aukerarik izan.
—Zelan definituko zenuke zure estiloa?
—Independientea. Jendeak Tim Burtonen antzekoa dela dio...
—Gotikoa agian?
—Ez zait arraroa egiten hori elkarrizketa batean irtetea... Beti esaten didate. Baina Sandra Uve komikigile eta porno zuzendariaren lana aintzat hartu izan dut beti marraz-



Argazkian, Sophie Stramb

terako orduan.
—Komikizalea zara beraz.
—Ez. Mundu hori nahiko “frikia” iruditzen zait. Inoiz ez dut esan “aaa, komikiek zortzen naute!” Behin, ordea, Getxoko komiki azokara joan eta Sandra Uveren batzuk erosi nituen. Ez nuen ezertaz ezagutzen, baina izugarri gustatu zitzaizkidan. Egiten dituen irudiak oso hunkigarriak dira. Ondoren Mario X ezagutu nuen (Reusko laguna), aldi berean Sandra Uveren ezaguna dena. Beraz, San-

dragaz egoteko aukera ere eduki dut.
—Komikiagaz akzesita lortu duzu Erandion.
—Lan handia egin nuen. Irabazteko aurkeztu naiz beti, noski, bestela ez nuke egingo. Ez nuen saria espero, baina aldi berean ez nuen aukera hori baztertzen. Curriculumerako ona da, besterik ez.

«Komikiaren mundua nahiko frikia iruditzen zait»

—Zertan datza aurkeztutako lana?
—Istorio ona da, neska bategaz maiteminduta dagoen banpiroari buruzkoa. Baina ezin da neskarengana heldu mundu paralelo batean bizi delako. Gaia nik aukeratu nuen, baina Mariok idatzi zuen.
—Zeintzuk dira zure etorkizuneko proiektuak?
—Mariok eta biok ipuin bat prestatzen gabiltza. 10 kapitulu edukiko ditu eta irudi guztiak nireak izango dira.
—Gatxa da honetan jardutea?
—Bai. Argitaletxe batean praktikak egin ditut eta pozik nago nire izena liburu bitan agertuko delako. Halere, Bartzelonan dago saltsa guztia. Oraingoz, beraz, nire kabuz egiten ditut gauza gehienak, nahiko autodidakta naiz. Behar izanez gero, edozer gauzatan lan egiteko prest nago. Ilusioa eta gogoan badauzkat behintzat. O

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... 902 54 08 54

www.arlan.biz

Umore Azoka > antzerkia kalera irteten denean

Maiatzaren 31tik ekainaren 2ra bitartean, antzerkia protagonista izango da Leioan

Umore Azokaren zortzigarren edizioa izango da aurtengoa eta inoiz baino indartsuago datorrela ematen du. Hiru egun luzetan zehar, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra arte, kale antzerkiagaz goatzeko aukera edukiko dugu. Goizetik hasi eta gauera arte, algarak, pozak eta koloreak hartuko dituzte Leioako kaleak (Boulevarda ere zarratuko dute), bertaratzen direnen gozamenerako.

Mundu osotik (Argentina, Australia, Frantzia, Lituania, Belgika, Holanda, Kanada, Uruguai, Errusia...) etorritako 49 konpainiek 159 emanaldi baino gehiago eskainiko dituzte aurtengo Leioako Umore Azokan. Euskal taldeek ere paper garrantzitsua beteko dute eta euren lanik berrienak aurkeztuko dituzte. Bertan izango dira, besteak beste, Leioako La Pez eta Getxoko Organik eta Tandí taldeak.

Hasiera batean antzerki tradizionalaren, hau da, antzokian egiten denaren erakusleiho izateko jaio zen Umore Azoka. “*Baina daukagun eguraldiagatik gezurra ematen badu ere, Euskal Herrian kale antzerki piloa egiten da eta bertoko taldeei bultzada emateko edo, gaur egun ezagutzen dugun jaialdira salto*



lazko Umore Azokan hartutako irudia

egin genuen”, azaldu du Alberto Garcia koordinatzaileak. “*Leioakoa ez da jaialdia, azoka baizik. Jaialdia publikoari bakarrik zuzenduta dagoen bitartean, gurean sektoreko profesio-*

«Euskal Herrian kale antzerki piloa egiten da»

nalak ere egoten dira ikuskizunak erosteko asmoz. Azoka da beraz”.

Joan den urtean, 40.000 pertsona baino gehiago batu ziren azokaren inguruan eta

aurten ere marka hori mantentzea espero dute antolatzaileek. Aurten, gainera, berrikuntzak egongo dira: Frikimuseoa, Granadatik ekarritako musika-kutxa erraldoia... “*Halere, betiko guneak mantenduko dira: zeruko arteak, ilusio gunea...*”.

Beraz, kaleko antzerkia zirkuagaz, dantzagaz, musikagaz eta kaleko arteakaz fusio-natuta ikusi gura duenak, Leioan edukiko du aukera, esan bezala, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra arte. Ez galdu! ○

Txitxibumuntzia

Euskararen aldeko jaia antolatuko du Berbalamiñe euskara elkarteak **ekainaren 3an**



lazko txitxiburruntzian jende piloa batu zen jai giroaz goatzeko asmoagaz

Txitxibumuntziaren bigarren edizioa izango da aurtengoa. Iaz bezala, San Bartolome auzoan antolatuko du Berbalamiñe euskara elkarteak, herriko beste hainbat elkarteren laguntzagaz (Lamia AEK, Mastitxu Udal Euskaltegia, Algortako ALBE, Gure Ohiturak eta Txikiak dantza taldeak...). Urtean zehar euskararen alde lan egin duen jendea saritzea eta euskara hutsezko jai bat egitea da ospakizunaren helburua, Berbalamiñe elkarteok jakinarazi dutenez.

Antolaketan berrikuntza bi egongo dira aurten. Alde batetik, ikastetxeen bertso idatzien lehiaketako sariak banatuko dituzte. Askartza eta Lamiakoko Eskola Publikoa izan dira parte-hartzaileak. Bestetik, Esaera Zaha-

rren Txapelketa antolatu dute goizerako.

Gainerako egitaraua joan den urtekoaren antzekoa izango da. Kale animazioa 10:00etan hasiko da, hala nola, gaztelu puzgarriak. 12:00etan, berriz, euskal dantza taldeen txanda izango da. Ondoren, 13:00etan, gura duenak bere abilezia erakutsi ahal izango du Larrain Dantza dantzatzuz. 13:30ean, Esaera Zaharren Txapelketaren finala izango da. Eguneko unerik garrantzitsuenak, hau da, bazkaria 15:00etan izango da eta 17:00etan, egunari amaiera emateko, erromeria egongo da Beste Bat talde dotoreagaz.

Bestalde, maiatzaren 19an Euskal Jaia antolatuko dute Lamiakoko maskarakoek, Berbalamiñeren laguntzagaz. ○

UDALERRIARI BURUZKO BIDEOA EDITATU DU LEIOAKO UDALAK

Joan den apirilaren 25ean udalerriari buruzko bideoa aurkeztu zuen Leioako Udalak. Urtean zehar grabatutako gertaerarik garrantzitsuenak biltzen ditu dokumentalak. Leioan zehar egindako ibilbide bat erakustez gain, herriko historiaren, ohituren eta kulturaren berri ere ematen du. Horrez gain, jateetxeen, lo egiteko lekuen eta bisitatzeko leku interesgarrien inguruko informazioa eskaintzen du. Udal ordezkariak definitu dutenez, jakiteko, ezagutzeko eta sentitzeko erreportajea da Leioakoa.

MEDIKUNTZA-ERAIKIN BATEK OSATUKO DU IBAIONDOKO PARKEA

Medikuntza-eraikin batek osatuko du Ibaiondoko Enpresa Parkea. Leioako Udalak industria garbien zonaldea sortu gura du udalerrian eta bertako lantokirik garrantzitsuenak Zorrotzaurreko Cadenas Viciny izango da. Medikuntzara zuzendutako eraikinak kontsultak izango ditu eta Areetako anbulatorioetik gertu egongo da. Lanak aurrera eroateko 1.150.000 euroko aurrekontua edukiko du Udalak.

Tiro Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea

Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

udondo

taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

LALIAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

KULTUR JARDUNALDIAK
MAIATZA AGURTZEKO

Naturarekin lotutako ekintzek eta umEEK itxiko dute Berangoko kultur egitaraua maiatzean. 21ean erakusketa bikoitza izango da. Alde batetik, herriko eskolako umEEK egindako margolaritza lanak izango dira ikusgai; bestetik, fosil eta mineralen erakusketa egongo da Berangoetako kultur etxean. Hilaren 23rako, Olagarro taldeak urpeko arrantzaren inguruko hitzaldia eta bideo ikuskizuna prestatu du. Maiatzaren 25a umeen egun handia izango da. Txistu, dantza garaikide eta karate erakustaldia egingo dute umEEK 16:30etik aurrera eskolan; horren ostean, Guatemalako emakumeen egoerari buruzko hitzaldia izango da Berangoetako kultur etxean. Azken hau, Gaztelekuko lagunek aurrera eramaten ari diren Berangotik Guatemalara proiektuaren barnean egongo da.

ANABEL LANDA DA
ALKATETZARAKO EAJ-REN
HAUTAGAI BERRIA

Anabel Landa da datorren legegintzaldirako EAJk aurkeztuko duen hautagaia. Honek, Miren Dobaranek hasitako proiektuekin jarraitzeko asmoa duela jakinarazi du eta, bere helburu nagusia, herritarren eta Udalaren arteko harremana sustatzea izango da. Egitasmo garrantzitsuenen artean, Sabino Arana kalea eta Kurtze auzoa lotzeko lanak azpimarratu zituen. Gazte Plana egiteko asmoa ere agertu du eta, horretarako, herriko gazteen parte hartzea ezinbestekoa ikusten du. Azken hilabeteetan azaleratu diren bizikidetzaz arazoak konpontzea, euskararen erabilera sustatzea eta berdintasun politikak bultzatzea dira aurkezpen prentsaurrekoan aipatutako neurrietako batzuk, beste askoren artean.

ASTEBURU BERDEAREKIN
HASIKO DA EKAINEKO
PROGRAMAZIOA

Ekologiaren inguruko ekintzak izango dira ekaineko lehenengo asteburuan Berangoetan. Zapatuan, arratsaldeko 6:30ean, *Ingurumenaren magia* espektakulua aurkeztuko dute Kubi eta bere lagunek. Era miragarrian bidaiatzen duten botilak, modu ulertezinean birziklatzen diren egunkari zatiak... istorio bitxiekin, zabor bilketari eta naturarekiko errespetuari buruz hitz egingo dute. Domekan, birziklapen tailerrak izango dira goizeko 10etatik aurrera. Arratsaldean, *Animalitos* txotxongiloen txanda izango da. Basoan bizi diren animalien gorabeherak ekarriko dituzte hauek.

Anne Marcoartu > “Adagio” ballet elkarteko irakaslea

“Dantza klasikoak armonia eta beste hainbat gauza ematen ditu”



Anne Marcoartu

Eskolaz kanpoko ekintza bezala hasi zen Berangoko Adagio ballet elkarteak. 1987an ekin zion Anne Marcoartuk ikastetxeko gimnasioan eskolak emateari. Udalak zorua egokitu zuen eta ordutik hona hainbat eta hainbat neska-mutil pasa dira handik. Gaur egun, 80 bat ikasle daude, adin guztietakoak: “*Bost urte da sartzeko eskatzen dugun adin minimoa; hortik aurrera ez dago mugarik*”. Berangoztarrek lehenetasuna duten arren, Uribe Kosta osoko gazteak daude.

«**Ikasleentzat erronka bat da oholtzara igotzea nire laguntza barik**»

Munduko konpainia profesionaletan euren lekua bilatu duten hainbat dantzari poztzen du Anne: “*87an finkatu nuen helburua lortu dut*”. Larrabeiti anaiak eta Estibaliz Perez dira ballet klasikoaren maila gorenera heltzea lortu duten dantzarietako batzuk:

“*Mikel Larrabeitik Arriaga Antzokian dantzatu zuen konpainia bateko dantzari nagusi bezala. Asko emozionatu nintzen oholtzara gainean ikusi nuenean*”. Horrez gain, dantza klasikoa gazteen parte izatea lortu nahi du: “*Balletak bururako zein gorputzerako onak diren hainbat gauza ematen ditu, armonia adibidez*”.

Ekainaren 3an Barakaldo Antzokian egongo dira Adagio Elkarteko neska-mutilak. Getxo Antzokiarena ez den estenatoki batera igotzen diren lehenengo aldia da eta gogotsu daude: “*Adinaren arabera, dantza ezberdinak prestatu ditugu. Gazte guztiek dantzatuko dute, aurten hasi direnak barne*”. Ikasleentzako ariketa ona da irakaslearen laguntza barik oholtzara gainera igotzea: “*Batzuk lotsatiak dira beste batzuk urduriak, baina, oholtzara gainean, beldurrak alde batera utzi eta ahal duten guztia eman behar dute*”. Urtean zehar egindako lana erakusteko aukera izango dute Barakaldon. Zorte on! ○

Goio Garaizar eta Manu Garcia > Mendibike elkarteak

“Inolako azalpenik eman barik bide guztiak asfaltatzen ari dira”



Argazkian, Goio Garaizar eta Manu Garcia Mendibikeko kideak. www.mendibike.net

Lagun koadrila batek, tartean Goio Garaizarrek eta Manu Garciak, Mendi-bike elkarteak martxan jartzea erabaki zuen orain dela 16 bat urte. “*Orduan muntainbikeak modan zeuden*”, gogoratu du Manuk, “*aurrezki kutxek ere txirrindulak saltzen zituzten*!”. Hasiera batean lagunak joaten baziren ere, berehala hasi ziren txapelketak eta bestelako ekintzak antolatzen. Gaur egun 160 bat bazkide edukiko dituzte guztira. “*Halere, orain jendea bere kabuz irteten da gehiago. Txapelketetara joateko talde bi dauzkagu, baina kirolari guztiak 30 urte baino gehiagokoak dira*”, nabarmendu du Goio. Gaur eguneko gazteek parte hartzen ez dutela deitoratu dute lagun biek.

Urtean zehar makina bat ekintza antolatzen ditu Gorlizko elkarteak. “*Hasi ginean lasterketak antolatzen genituen. 10 urtez Euskadiko Opena prestatzeko ardura eduki genuen... Onain, ordea, mundu guztiari zu-*

zendutako martxa bat bakarrik antolatzen dugu urtero”, azaldu du Manuk. UmEEK ere leku berezia betetzen dute elkarteak. “*Umeei zuzendutako ekintzak arrakastatsuak izan dira ia beti. Beste leku batzuetan 30 bat ume ikusten duzun bitartean, Gorlizen 120 edo batzen dira*”. Izan ere, tratu berezia jasotzen dute etxeko txikienek: opariak, zozketak, elastikoak...

«**Gaur eguneko gazteek ez dute ekintzetan parte hartzen**»

Bestalde, inguruko udalek euren kirolean hain garrantzitsua den ingurugiroa aintzat hartzen ez dutela salatu dute elkarteak. “*Inolako azalpenik eman gabe bide guztiak asfaltatzen ari dira. Bideak garbitu barik, zarratu edo hormigoitzen dituzte. Ingurunea kaltetzen dute horrela. Lehengai naturalak erabiliz bideak konpon daitezke, eta ez hormigoiaz*”. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Teléfono: 940 701 126

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

PLENTZIAKO LUDOTEKAKO
UDAKO PROGRAMAZIOA

Plentziako Udal ludotekak antolatzen duen 4 eta 11 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako udako programa prest dago. Horretan parte hartu ahal izateko, izena eman behar da Goñi Portaleko bulegoetan. Epea 2007ko maiatzaren 25era arte egongo da zabalik. Hala ere, informazio gehiago nahi izanez gero, 94 677 55 41 telefonora deitu edo kultura.plentzia@bizkaia.org helbidera mezu bat bidal daiteke.

ARMINTZAKO FRONTOIA
BERRIZTUKO DUTE

Lau hilabetez luzatuko dira Armintzako frontoia berrizteko lanak. 227.907 euroko aurrekontuarekin aldagelak eta harmailak berriztuko dira. Horrez gain, jokalekura begira egongo den eta 40 ikusle hartu ahal izango dituen beirazko bulego bat ere egin gura dute. Hau guztia, inguruarekin bat datorren estetika erabiliz egingo da. Pedro Botejara alkateak esandakoaren arabera, “*lan hauek auzoaren giroa animatzeko eta euskal pilota sustatzeko helburua dute*”.

ANDRA MARI JAIETAKO
KARTEL LEHIAKETA

Urdulizko Andra Mari Jaietarako kartel lehiaketa martxan dago. Ekainaren 16rarte nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira Torrebarri kaleko Kultur Etxean. Gaia eta erabili ahal diren teknikak askeak dira. Baldintza bakarrak, 45 x 65 cm-ko kartelak izatea eta “Urdulizko jaiak Andra Mari 2007” testua agertzea dira. Irabazleak 400 euro jasoko ditu.

URDULIZ

Antzinako argazkien bilduma egin gura du Udalak



Urduliz aspaldian

Aspaldi gertatutakoak gogora ekartzeko ezinbesteko tresna izaten dira argazkiak. Urdulizko Udalak, herriaren irudi zaharrak bilduko dituen liburu bat sortu gura du. XIX. mende amaieratik, XX. mendeko 80ko hamarka bitarteko jendeak, paisaiak eta ohiturak bildu nahi ditu liburuan.

Horretarako, herritarren laguntza ezinbestekoa du Udalak. Ekainaren 15era arte, etxean gordeta dituen argazki zahar horiek Udaletxera eraman ahal izango ditu proiektu honetan parte hartu gura duenak. Erre-

tratu guztiek gutunazal batean joan behar dute eta, horretan, izena eta telefono zenbakia jarri beharko da. Astelehenetik ostiralerara entregatu ahalko dira goizeko 9:00etatik 13:30era. Liburua osatutakoan, argazkiak jabeek itzuliko zaizkie.

Ahal den neurrian, argazkiek data, testuinguruaren azalpenak eta agertzen diren pertsonen izenak biltzen dituen azalpen batekin lagunduta joan behar dute. Izan ere, liburuak, herriak pasa den mendean izandako bilakaera islatzea du helburu. ○

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETAK

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf: 460 90 31

48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Arteskola.** Algortako erakustaretoa. Maiatzaren 21etik 26ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.
- **Patchwork.** Algortako erakustaretoa. Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.
- **Arte aplikatuak.** Erromoko erakustaretoa. Maiatzaren 28tik ekainaren 1era arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

LEIOA

- **The mother route. Route 66.** Kultur Leioa. Ekainaren 3ra arte. 10:00-20:00.

ERANDIO

- **Argazki erakusketa: Dominikar Errepublika eta Peru.** Izan elkartea. Josu Murueta kultur etxea. Maiatzaren 31ra arte.

ZINEMA

GETXO

- **Babel.** Getxo Antzokia. Maiatzak 23, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
- **Maria Antonieta.** Azpitituludun jatorrizko bertsioa. Getxo Antzokia. Maiatzak 25, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.
- **Las fieras del F.C.: el ataque de las vampirasas.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Maiatzak 27, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.
- **Bosque de sombras.** Getxo Antzokia. Maiatzak 30, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

LEIOA

- **Iluminados por el fuego.** Auditorium. Maiatzak 22, martitzena.

► **Jaialdia Erromon**

Folixa Asturiana Itzubaltzeta gaztetxean

Itzubaltzeta gaztetxeak antolatzen duen jai asturiarraren hirugarren edizioa izango da aurtengoa. Maiatzaren 26an izango da, gaztetxean bertan. 13:00etan, ongietorria egingo diete Asturiasetik etoriko diren lagunei (autobusa ipini dute bertatik). Ostean, trikipoteo antzeko bat egingo dute, baina gaitakaz. 15:00etan gutxi gorabehera, bazkaltzeko elkartuko dira eta 18:00etan, kalejira egingo dute Erromon zehar Villaviciosako gaita bandak lagunduta. 20:00etan, berriz, sagardo dastaketa egongo da Itzubaltzetan eta, ondoren, asturiarrez kantatzen duten taldeen kontzertua: Skama La Rede, Gomeru eta Asperos. Aurreko urteetan bezala, 400 bat pertsona hurbiltzea espero dute antolatzaileek.

• **Non:** Itzubaltzeta gaztetxea • **Noiz:** Maiatzak 26, zapatua

20:00. Sarrera: 2 euro.

- **Cartas desde Iwojima.** Auditorium. Maiatzak 29, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

ANTZERKIA

GETXO

- **Obejtivo Macbeth.** BAI. Getxo Antzokia. Maiatzak 25, barikua. 19:30. Sarrera: 3,50 euro.

LEIOA

- **Tengamos sexo en paz.** Entrecajas Producciones. Auditorium. Maiatzak 25, barikua. 20:30. Sarrera: 15 euro.
- **Buenrollitina.** Riki Lopez. Auditorium. Maiatzak 31, eguena. 00:30. Sarrera: 12 euro.
- **Aullidos.** Corsario. Auditorium. Ekainak 1, barikua. 00:30. Sarrera: 12 euro.
- **Con el culo al aire.** La Ruta eta Nacho Vilar. Auditorium. Ekainak 2, zapatua. 01:00. Sarrera: 12 euro.

BESTEAK

GETXO

- **Kontularien Kluba: Jose Campanari.** Algortako kultur etxea. Maiatzak 25, barikua. 19:00. Sarrera dohainik.

LEIOA

- **Ganbera musika. Erdi mailako orkestra.** Auditorium. Maiatzak 24, eguena. 20:00. Sarrera: 3 euro.
- **Lamiakoko Jaiak.** Maiatzaren 25etik 29ra arte.
- **Tai Chi ikastaroa.** Erabiltokia. Maiatzak 25, barikua. 19:00-20:15. Izena emateko: 692 730 196.
- **Komikigintza.** Erabiltokia. Maiatzak 26, astelehena. 16:30-18:30. Sarrera: 10 euro. Izena emateko: 692 730 196.

GORLIZ

- **Ipuin Kontalaria: Iñaki Carretero.** Ikastetxea. Maiatzak 26, zapatua. 18:30.
- **Umeentzako jolas parkea.** Iberrebarri Maiatzak 27, domeka. 12:00-14:00.

ERANDIO

- **Udaberriko kontzertua.** Itxartu, San Ignacio eta Mendibaiarte abesbatzak. Maiatzak 25, barikua. 20:00. Sarrera dohainik.
- **Kontzertua: Gontzal Mendibil.** Musikaldia 2006. Astrabudua. Maiatzak 26, zapatua. 15:30.
- **Kontzertua: Oskorri.** Musikaldia 2006. Altzagako Azoka. Maiatzak 26, zapatua. 17:30.

SOPELA

- **Sopelanako gauak.** Zure arropa pertsonalizatu, karaokea, eta masajeak. Igerilekuak. Maiatzak 25, barikua. 22:30-01:00.
- **Sopelanako gauak.** Uretako puzgarriak eta jolasak, power tono. Igerilekuak. Ekainak 1, barikua. 22:30-01:00.

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

[albuma]



Kantuketan 2007

Talde nagusiaren izena eta zerutik zetozen albisteak bat ez etortzeko esperantzagaz jende andana batu zen Portu Zaharrean, izan ere, aurtan ez zegoen urtero babesleku den ohiko karpa. Hodei beltzen demari aurre eginez hasi zuten kontzertua Lisabökoek. Gero Gorka Urbizuk arrazoi osoz esan legez “etxera eroateko moduko mutilek” bertaratutakoen belarriei gozamina eman eta giroa berotu zuten. Ostean hartu zuen oholtza Berri Txarrak taldeko hirukoak, orduan egin zuen eztanda gauak. Gitarra, baxu eta bateriaren soinu indartsuek eta Urbizuren eztarri ahaltsuak lehertarazi zuten giroa. Japonia, Taiwan, Paris, Irlanda... eta abarretik ibili ostean, Alemaniarantza abiatu baino lehen Algorta gozarazi zuten Berri Txarrakekoek. Halaxe amaitu zen aurtengo Kantuketan musika zikloa!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Berangori, garai batean, Texas esaten ei zioten. Gazteen asteburuko aisialdiak pilotalekuko dantzaldietan zuen ardatza; sarri, antza denez, kolpeka amaitzen ziren zapatu arratsalde haiek. Jaiak bai, borroka ere bai. Aspaldi desagertuak dira pilotalekuko dantzaldiak, baina Texasek kale berean segitzen du, indar berriz gainera. Asteburuetako giroak, giro berba erabiltzerik badago, beldurtuta eta asaldatuta dauzka Sabino Aranako auzotarrak. Istiluak, ondasunei erasoak, lapurretak... Berangoztar talde bat, honenbestez, Udalari kontuak eskatu dizkio, baina eskumen arazoak dagoz tartean, besteak beste.

Berangoko gauak

Zapote txarreko tragoak

Testua eta argazkiak: **Unai Brea**

Bost puntu, bost

Maiatzaren 5eko kontzentrazioan, auzotarrek bost puntuko idatzia alkateari aurkeztea erabaki zuten, Udalak izenpentu zezan. Besteak beste, zera eskatzen dute: Udalak indar egitea diskotekako ateari beti itxita egon daitezen, eta bere gain hartzea norbanakoen ondasunei egindako erasoen ondorioak. Fernando Ansoleaga auzotarrak esan digunez, *“alkateak modu onean hartu gintuen, eta zintzo ziharduela emoten zuten. Momentuz, diskotekako ugazabari hilabete bat emon diote egokitzapen-lan batzuk egiteko. Dena dela, bitartean arazoak bere horretan dirau, eta guk presio egiten jarraituko dugu”*. Auzotarrek iragarri dutenez, mobilizazio gogorragoak egiten hasiko dira Udalak bost puntuok onartu ezean.

Zapatu arratsaldea. Sabino Arana kalean 50en bat auzotar pankarta baten atzean elkartu dira: *“No al botellón: al vandalismo. No a los destrozos del fin de semana”*. Arazoaren alderdi bi aipatuak dira: botelloia eta istiluak. Hirugarrena, pankartan ageri ez dena, bertatik bertara dagoen diskoteka da. Batzartxoan egin eta gero, kontzentrazioa harantz doa; pankarta aretoko ate aurrean paratuko dute, beste hamar minutuz. Ordu batzuk geroago, ez da giro izango inguruan.

«Eraso zerrenda ez da txantxetako: zaborrontziak errepide erdian, estankoko atea bere lekutik aterata...»

“Orain dela urte asko dauzkagu arazoak hemen, baina azken urte bietan batez ere: astero izaten da gudua, eta aurtengo bost hilabeteetan are okerrago izan da”, dio Karnele Uriartek, auzotar taldearen hauspoetako batek. *“Aurrekoan, herria zelan utzi zuten ikusita, batzea erabaki genuen, ea zer egin genezakeen”*. Bezperako gaua bereziki latza izan zen. Egunsentiak, ohiko Berango baino, gudu zelai baten arrastoak erakutsi zizkien gero eta nazkatuago dagoen auzokideei. Erasoa zerrenda ez da txantxetako: zaborrontziak errepide erdian, jardineretako lurra autoen gainean,

estankoko atea bere lekutik aterata... eta alboko taberna batean lau bider lapurtu dute hiru astean. Adibide batzuk baino ez dira.

Uriartek eta beste zenbaitek sinadura bilketari egin zioten Sabino Arana kalean. *“365 jaso genituen, inork ez zuen ezetz esan”*. Izen zerrenda hori eroan zuten Udaletxera, euren argudioen osagarri, eta Miren Dobaran alkateari kontuak eskatu zizkioten. *“Konfiantzazko epe bat eskatu zigun, maiatzaren 5era arte”*, azaldu du Uriartek.

Egun horretan eginak dira, hain zuzen, adierazpenok.

Dobararengana jo dugu, eta hark, lehenik eta behin, arazoak bereizi egin gura izan ditu: *“Batetik, botelloia dago, eta hori ez da bakarrik Berangoko arazoa; legeak dagoen moduan, edozein herritan egiten da. Beharbada Berango aproposagoa da, eta baliatze jende gehiago etortzea hona”*.

Orain urte batzuk hasi ziren Udalaren ahaleginak botelloiari aurre egiteko. Lehenbizi, haren ondorioak leuntzen saiatu ziren, gazteek kalean edaten jarraituko zutela ontzat emonda. Azkenik, ordea,



Auzotarrak maiatzaren 5ean egin zuten protestan



arazoari eutsi ezin ez eta Bilbokoaren antzeko ordenantza egin du Udalak. Hau da, kalean edatea debekatu dute. *“Denbora luzea igaro da ordenantza hori onartzerako, guk ez daukagulako berau betearazteko bitartekorik”*, dio Dobaranek, Berango txikiak lau udaltzain dauzkala gogoraraziz.

Istiluei dagokienez, Dobaranek argudio berari eutsi dio: segurtasuna Ertzantzaren ardura da. *“Udalak ezin du ejertzito bat ipini hori kontrolatzeko, bestela ez legoke dirurik beste gauza batzutanako”*. Arazoaren muina, baina, diskoteka da auzotarren ustez. Asteburuetako istiluak sortzen di-

«Astero izaten da gudua; aurtengo bost hilabeteotan are okerrago izan da»

Gaueko bederatzietatik aurrera, segurtasuna Herrizango Sailari dagokio, edo bestela esanda, Ertzantzari.

Lana emon die, baina Udalak lortu egin du, azkenean, Ertzantzaren konpromisoa ordenantza betearazteko. Maiatza hasieratik, botelloia, taldetxo bakanen bat izan ezik, Berangotik desagertu da, edo primeran ezkutatuta da behintzat.

tuzten gazteak erakartzea ez eze, zarataren gaineko legedia ez betetzea leporatzen diote (ateak zabalik edukiz, esaterako). Udalak, aldiz, aretoak oro har araudia betetzen duela dio, eta laster egitekoa dela dezibelio neurketa. *“Bestalde -dio alkateak-, ezin diskotekari leporatu kalean jazotzen dena”*. Legeak, bitartean, herritik ospa egiten du asteburu gauero. ○

Orain lau urte

Botelloiari lehenengo erantzuna 2003an eman zion Berangoko Udalak. Urte hartan, herriko agintariak Eusko Jaurlaritzagaz harremanean jarri ziren, gero eta larriago bihurtzen zebilen arazoari aurre egiteko. Azkenik, Jaurlaritzako Drogomenpekotasun Zuzendaritzak teknikari batzuk kontratatu zituen, egoera aztertu eta urtenbideak proposatzeko.

“Bide publikoan egindako alkohol kontsumo arazo bat zegoen, guk halaxe esaten diogu eta”, gogoratzen du Mireia Sanzek, kontratatutako aditu horietako batek. *“Herriko diskoteka batek -argitu dezagun ez dela oraingo arazoaren muinean dagoen bera- alkoholik gabeko jaialdiak antolatzen zituen asteburu arratsalde, adinez beharagoentzat, eta hura zen istiluen iturria”*. Alkohola egon bazegoen, noski, merke-merke alboko

«2003an, Udala harremanean jarri zen Drogomenpekotasun Zuzendaritzagaz, botelloia zela-eta laguntza eske»

supermerkatuan erosita. Ondorioak, berriz, oraingoan antzekoak baina ez hain larriak: zikinkeria, zarata, istiluak...

Mireia Sanzek eta haren lankideek taldeak sortu zituzten, arazoaz eztabaida sortzeko. Batean gazteak, bestean auzotarrak... Proposamenak egin ziren, eta batzorde bat eratu zen alde guztietako ordezkariak. *“Orduan, orritxo bat zabaldu genuen, jarrera guztiak batzeko garrantzia azpimarratuz. Alegia, gazteek eta auzotarrek aintzat hartu behar zituztela bestearen eskubideak: gazteek dibertitzekoa, herritarrek atsedean hartzekoa... Bide batez, alkohol kontsumo arduratsuzak berba egin genuen gazteakaz”*.

Lan hura 2004 hasieran amaitu zen, diskotekak arratsaldeko saioak bertan behera utzteaz batera, baina ez arrazoi horregatik, Sanzek azpimarratzen duenez. Eta horrela konpondu zen, itxuraz -gero ikusi da ezetz-, arazoa. *“Gure lana, ordea, asmo handiago baten lehen pausua baino ez zen. Besteak beste, bideratuta utzi genituen gazteentzako hainbat aisialdi alternatiba, baina ez dakit zer jazo den geroztik”*.



Hegan Leioan

Alex Mosterin

Mostolesko (Espainia) Daniel Leon skaterrak Leioako Munduko Skateboard Txapelketa-Bowlriders Worl Cup-en burututako sekuentzia bat dakarkigu argazkilariak UK-ko orriotara. Leioako Skate Park berri bezain dotorean antolatu zuten txapelketa. Hurrengo probak, besteak beste, Marsella, Lisboa, Praga, Londres, Seattle eta Malmon (Suedia) izango dira. ○





GETXOKO SAN ISIDROAK

Getxoko jaiak iruditan



Sanisidroekin batera aurtengo jaien denboraldi luzea hasi da Getxon. Getxon hain zuzen ere, iaz ospatu ziren jai guztiguztietan ibili zen Mikel Martinez de Trespuentes argazkilaria, beti kamera aldean. Milaka argazki atera zituen eta onenekin *Photo Album Getxoko jaiak 2006* liburu ederra osatu du. Guk biziki gomendatzen dugun lan mardul horren lagin txiki bat daukazue orrialdeotan.

Argazkiak: **Mikel Martinez de Trespuentes**



SOKAMUTURRA PORTU ZAHARREAN





ANTZARA EGUNA





PORTU ZAHARRA



SANISIDROAK, GETXO



AREETAKO JAIK



PORTU ZAHARRA



PORTU ZAHARRA



KARMENAK, NEGURI



SANINAZIOAK, ALGORTA

[berbetan]

Kasualtaterik kasualitate, Edurne Ormazabal, 1963an jaioako tolosarra, hogeit hamar urte ingurugaz ailegatu zen komunikazio mundura, psikologia ikasketak egiten zebilela. Bokazioa ez alde batera ez bestera lerratu gabe oraindik, baietz esan zion irratian jarduteko proposamen bati, eta baietz esan, gero, antzeko zereginetan ibiltzeko eskaerei. Halako batean ETBko *Katu Kale* musika saiora ailegatu zen, eta pantaila txikian agertzeaz batera, ohi denez, ezagutu egin genuen ordura arte ahots hutsa zena. Hurrengo urratsak mikro eta kameraren atzealdera eroan zuen berriro Ormazabal: *Euskadi Gaztea* irratiko arduraduna da hura sortu zenetik, orain dela hamazortzi urte. Saio gaztea, baina adin nagusikoa dagoeneko, eta dialean ondo errotua zalantza barik. Ez zaigu ahaztu, ordea, Edurne Ormazabalen aurpegia lantzean behin ikustea. Besteak beste, Donostiako Zinemaldian aurkezle lanak egiten dituelako. *Euskadi Gaztea* eta Zinemaldia, ardatz bi horien inguruan gorpuztu dugu berbalditxo hau.

Edurne Ormazabal

Testua: **Unai Brea**

—Ez daukazu kazetaritza ikasketarik, baina honezkero kazetaria zarela esatea zuzena da? —Kazetari baino, komunikatzaile hitza gehiago dagokidala uste dut. Ez dut inoiz albistegietan lan egin, ez dut kazetari lan konbentzional hori egin. Erosoago nago komunikatzaile hitzarekin. —Zeregin horietan, jende aurrean agertzen eta, nahiko gazte hasi ei zinen... —Baaaa... Ez horrenbeste, kar, kar, kar... —Baina bai, behintzat, artean ikaslea zine-la... —Hori bai. Irratian hasi nintzenean oraindik unibertsitatean nengoen. Baina tira, guk dauzkagun esatari berriek ere, Euskadi Gaztean hasten direnek, normalean, ikasketak burutu gabe izaten dituzte. Niri behintzat, ez zait iruditzen bereziki gazte hasi nintzela. —Amaitu egin zenituen ikasketak, hala ere... Horrek esan gura du hasierako garai hartan komunikazioaren abentura ez zenue-la oso argi ikusten?

—Ez nuen oso argi, ez, inola ere ez. Ez neukan ideiarik ere zer egingo nuen, neure buruarekin. Beti izan naiz, gainera, oso formala ikasketekin, oso ikasle zintzoa, eta garbi izan nuen, badaezpada ere ikasketak bukatu egin behar nituela behintzat. Nahiz eta ikusten nuen psikologia ez zela inoiz nire lanbidea izango. —Eta zelan ailegatu zitzaizun esataria izateko aukera? —Kasualitatez. Herri Irratian Tolosako ko-

rresponentsari baten bila hasi ziren, eta irratiko esatari eta nagusietako batek ezagutu egiten zuen Tolosan nire lagun bat. Haren bitartez proposamena iritsi zitzaidan, eta baietz esatea bururatu zitzaidan. —Beste kasualitate batzuek eroan zaituzte orain zagozen lekuraino? —Eskaintza gehiago izan nituen. Nik gehiegi bilatu gabe etorri zitzaizkidan, bata bestearen atzetik, proposamenak. Eta nik konszienteki -nolabait esateko- erabaki bat hartu gabe ere, gauza batek bestera eraman ninduen,

“Komunikabideetan audientzien itzalpean bizi gara”

irratira lehenengo eta telebistara gero. Deia egunkarian ere egin nuen, denboraldi batez, holako korresponentsari lana. Orduan erabaki nuen idatzizko prentsa ez zela niretzat. Eta gero telebistakoa sortu zen, *Katu Kale* saioa. —ETBn, orduan, hasieratik egondakoa zara... —Hasiera-hasieratik ere ez. Bost urte-edo bazeramatzan telebistak. —*Katu kaleri* esker hasi zinen ezaguna izaten... Zer gogoratzen duzu garai hartaz? —Oso polita zen saio hura egitea. Seguraski, oraingo erredaktore edota aurkezleekin konparatuta askoz profesionaltasun gutxiagorekin aritzen ginen. Baina gogo handiz, ETB ere askoz txikiagoa zen orduan. Pasio handiko garaia zela dut gogoan, ordu pilo bat ema-

ten genuen han... Askotan sinesten genuen egiten genuen saioan. —Orduan baziren erreferentziako musika saio batzuk Espainiako telebista kate bietan —garai hartan bakarrak haiek ere-. *Aplauso*, *Tocata* eta abar. —Guretzat ez ziren haiek izan erreferentzia, *Sputnik* izeneko saio bat baizik. TV3n egiten zen, eta oraindik ere egiten da. Oso ona zen. Garai hartan, orain bezalaxe, TV3k sekulako maila zuen ikuspuntu askotatik, aurrekontua barne. Guk baino askoz aukera gehiago zuten

gauzak egiteko. Eta guretzat hura zen erredua. Baina gure errealitatea, gure abiapantua, desberdinak ziren. Eta ez genuen konparaziorik egiten. —*Katu kale* arrakastatsua izan zen, bada, edo hori da behintzat niri geratu zaidan ustea... —Bai, bai, tira, orduan ez ziren audientzia neurkertak gaur bezala egiten. Eta ez dakit oso emaitza onak izan genituen. Baina, erreferente bihurtu zen, kualitatiboki behintzat... —Ia denok gogoratzen gara, izan ere, *Katu Kale* izeneko saioa egon zela ETBn. Baina zer musika mota ateratzen zen han? —Denetarik, oso zabala zen, pop eta rockaren barnean. Bereiziki euskal musikari eskain-



tzen genion tarte zabala.

—Gaur egun ez dago musika saiorik telebistetan, desagertu egin dira. Zergatik?

—Programatzaileek beti aipatu dute musikak, telebistan, ez duela interesik sortzen, ez duela erakartzen. Ez hemen bakarrik, estatuko telebistetan ere ez dago horrelako programarik. Ez dakit zergatik. Formatoetan ez da asmatu, edo... Beste arlo batzuk gizartearen aldaketetara eta jendearen eboluziora egokitu diren bezala, agian musika munduan ez dugu jakin.

—Susmoa daukat ez ete den hori gertatu, hain zuzen, audientziaren diktadura hain agerikoa bihurtu denetik...

—Horretaz ez ezazu dudarik egin.

—Noiz arte gon zinen *Katu Kalen*?

—Uste dut lau urtez iraun genuela. Handik irratora joan nintzen, *Euskadi Gazteara*, eta gaur arte. Arduradun moduan nago hasieratik, orduan sortu berria zen. Formatua baze goen erabakita ni iristerako, irati-formula bat izan behar zuen, esateriak aukeratuta zeuden, lan taldea sortuta eman zidaten... erabaki nagusiak hartuta zeuden. Eta hasiera oso gogorra izan zen. Nik ez neukan eskarmenturik talde baten ardura eramaten, eta...

—Zein zen zure betebeharra? Edukien gaineko erabakiak hartuko zenituen...

—Hori bai. Pixkanaka musika programazioa erabakitzen joan ginen, eta eredu bat sortzen. Irrati-formula egiten, baina geure irati-formula. Euskal Herrikoa, alegia. Eta hori da orain *Euskadi Gaztea*: gazte euskaldun gehiengo batentzat egindako irati-formula euskalduna. —Euskalduna, dinozu. Euskaraz izan behar du musikak, ez du izan behar... Kuotez ere berba egiten da, eta herrialde batzuetan ezarrita dagoz, egon...

—Bai. Guk ez ditugu kuotak planteatu ere egin, hasieratik garbi genuelako *Euskadi Gaztearen* izatearen eta nortasunaren adierazgarri nagusietako bat euskal musikak izan behar zuela. Hau da, kuotak, dagoeneko, ezartzen ditugu.

—Inon irakurri dugu, zuk esanda, *Euskadi Gaztea* sortu berria zenean euskaldunak ez zeudela ohituta halako irati mota euskaraz entzuten. Orduan ere audientzien itzala zebilen inguruan?

—Audientzien itzalpean denok bizi gara momentu honetan, komunikabideetan lan egiten dugun guztiok. Komunikabide publiko koa zein pribatua izan. Eta komunikabide euskaldunen kasuan ere audientziak garrantzitsuak dira. Badakigu merkatuan ez ditugula denok aukera berdinak; azkenean, gure publiko potentziala, gure unibertsoa, txikiagoa delako. Eta euskaldunek ez gaituzte gu bakarrik entzuten, beraz gure lehiakideak denak dira.

—Eta zelan lortu duzue euskaldunak era-

guztia egin dadin, baina baita beste gauza minoritarioago batzuk ere.

—Disketxe handiek ezarritako modak ere sartuko ziren Euskal Herrian...

—Ez hainbeste. Zaila da horren zergatia zein den asmatzen. Pop, adibidez, oso gutxi egiten da euskaraz.

—Azken urteotan Donostiako Zinemaldian ikusi zaitugu, hasiera eta amaierako ekitaldietan aurkezle. Gainerakoan, zelan bizi dituzu egun horiek?

“Programatzaileek diote musikak ez duela interesik sortzen telebistan”

kartzea? Lortu egin duzue, izan ere?

—Horretan gabilitza, programazio erakargarriagoa egiten. Lehikortasuna da gakoa azken batean, horretan ez dago dudarik. Eta euskara hutsa, gaur, ez da nahikoa noski. Lehiakortasun horretan euskara indargune bat izan daiteke, eta bada, baina ez da bakarra. Entzule askok irati euskalduna aukeratuko dute euskaldunak direlako eta erosoago sentitzen direlako euskal esatari edo komunikatzaile batekin. Baina ez horregatik bakarrik. Eta beste jende askorentzat euskaraz izatea ez da faktore erabakigarria izango. Ez dugu denok euskara berdin bizi.

—Gazteengana ailegatzea da zuen helburua, noski. Zein da zuen adin eremua, hala esan badaiteke?

“Donostiako Zinemaldia egiteko, oraingoz, izarrak ekarri behar dira”

—Gutxi gorabehera, 14 urtetik 25-30era. Nahiz eta entzule asko helduagoak diren.

—Erraza da horientzat musika saio bat programatzea? Oso heterogeneoak dira musika zaletasunak, adinaren arabera?

—Heterogeneoak dira, bai, baina gazte-gazteak ere oso heterogeneoak dira. 20 urteko euskal gazte baten irudia finkatzea ez da batere erraza. Eta musikari dagokionez, denetik entzuten da. Gu saiatzen gara, ahal den neurrian, zabalak izaten. Arrakasta lortzen duen hori

—Proba-saio piloa egin behar izaten dut, ordu piloa ematen dut horretan. Gainera, sail ofizialeko filmak ikusten ditut, prentsaurrekoak gidatu...

—Zelakoa da bizikidetz hainbesteko glamourragaz? Hainbestekoa bada, behintzat...

—Bai, nire ustez bada. Eta ez dakit ba, niretzat ohitura bihurtu da. Ni ez naiz inoiz oso mitomanoa izan, kasu bakanen bat albora utzita. Tira, normaltasunez hartzen duzu, azkenean.

—Eta prentsaurrekoetan zer izaten da hizpide, zinema bera edo glamourra?

—Ikusi ditut kazetariak txorakeria izugarriak galdetzen, baina normalean zineaz hitz egiten da.

—Baina plazaratzen dena, azkenean, izarren


kontutxoak dira. Kazetarien erruz izango da...

—Bai, eta Zinemaldiaren arrakasta, askotan, etorritako izar kopuruaren arabera neurtzen da. Baina uste dut Donostiako Zinemaldiak aspaldi egin zuela apustua zinearen alde, eta datozen izarrak, behintzat, film baten karira datoz.

—Baina ekarri egin behar dira, izarrak...

—Behar, behar... egin nahi duzun zinemaldi motaren arabera. Donostiakoa egiteko, oraingoz, bai. ○

Berangon...



egin behar dugu



Anabel Landa Gaubeka

Berangoko Alkatetzarako
Hautagakia

www.hayquehacer.com

eman botoa
vota

EAJ
PNV
www.eaj-pnv.com

zine**eskola**

Oskar Fernandez

Identifikazio
zinematografikoa (I)

Identifikazio berbak gizarteko eremu desberdinetan oso erabilpen handia du, baina zinemari dagokionez, oso esanahi zehatza du. Hiru mota desberdinetako identifikazioa aipa ditzakegu: Primarioa, Sekundarioa eta Kontakizunarekiko identifikazioa. Identifikazio Primarioa kameraren ikuspuntuarekin lotuta dago. Film baten kontaketa ikuslea lekurik hoberenean jartzen saiatuko da beti. Ikusleak istorioaren garapena leku pribilegiatu batetik jarraituko du. Jainko bat izango balitz bezala lekurik hoberenetik begiratuko du. Beraz, kamerak beti begiratzen jartzen gaitu gu. Baina batzuetan aktoreek lan egiten duten bitartean, eta gidoiaren aginduari jarraituz, kamerara begiratzen dute. Gune horiek ikuslearentzat desatseginak dira. Hau ulertzea erreza da, bat-batean ikuslea begiratuta sentitzen baita, eta berak nahi duena begiratzea da eta ez begiratua izatea. Ideia hau ahalik eta garbien argitzeko, adibide oso ospetsu eta ikaragarri ona ikusiko dugu. Stanley Kubrick zuzendariak zuzendutako *Metalezko jaka* filmean, bigarren sekuentzian, Hartman sarjentu nazkagarria guztiz haserretuta dago “Bufon” errekrutarekin; ukabilkada ematen dio sabelean eta belaeun lurrean dagoenean, bat-batean, Hartman sarjentuak kamarari begiratzen dio, eta bere onetik aterata egongo balitz bezala jarraitzen du mehatxatzen eta irainak errekrutari botatzen. Baina kamerari begiratzen dionez, guri, ikusleei, zuzenean sekulakoa botatzen digula dirudi. Eszena hau, filme honetan gehiago daude, oso bortitza eta harrigarria da, eta Kubrickek era bikainean erabiltzen du baliabide hau ikusleek ahalik eta hoberen konturatzeko, jabetzeko, barneratzeko, zein estualdi larrian dagoen istorioaren protagonista.

Euskal zinea paperera

Euskal musika konpositoreen lanen eta euskal film laburren gaineko liburu bana kaleratu dituzte

Euskal zinea zer den eta horrek hartzen duen esparru eta egileak zehazteak ezta-baida luzeak ekarri izan ditu eta ekar ditzake oraindik ere. Alabaina, zentzu zaballean hartuta, euskal zinea helduleku duten bi liburu argitaratu dira azken boladan. Batek euskal konpositoreen zinerako musika lanak dauzka gogoan eta besteak euskal film laburren historia dauka jardungai; biak gazteleraz plazaratu dituzte.

Gasteizko Europako Zine Berriaren jaialdian (NEFF) aurkeztu dute Kepa Sojo zuzendariak koordinatutako *Compositores vascos de cine*. Zinemastea saileko bildumaren lehenengoa den horretan hainbat euskal musika konpositorek zinerako egindako obrak azaltzen dira; eta

«**Compositores vascos de cine eta Breve historia del cortometraje vasco lanak**»

sortzaile ezagunak, ahaztuak zein gazte hasiberriak batu dituzte, berbarako: Jesus Guridi, Julian Gayarre, Carmelo Bernaola, Bingen Mendizabal, Alberto Iglesias, Txomin Artola, Koldo Uriarte, Iñaki Arregi... Zine mutuko sasoian hasi (musika bazen) eta gaurko euskal zine-noten



Argazkian, Enrique Urbizu

arteko ibilbidea batzen du lanak.

Bestalde, Euskadiko Filmategiak *Breve historia del cortometraje vasco* liburu argitaratu du. Jesus Angulo, Jose Luis Rebordinos eta Antonio Santamariak Euskal Herrian 1923tik gaur arte ekotzi diren 1.006 film labur bildu dituzte liburura; zelanbait euskal film laburren historia aztertu dute. Hastapenak *Un drama en Bilbao* (Alejandro Olavarria) lehen euskal film laburra ei denetik, *Ama Lur* (1968) lanera arteko bitartea hartzen du; gero 70 eta 80ko hamarkadak dituzte hizpide eta amaitzeko 90koak (adb.: Enrique Urbizu, Julio Medem edota Alex de la Iglesia ezagunen lehen lan laburrak). o

Iparaldearen printzak

Eüskaldünak: A capella eta Maddi Oihenarten *Hari Biru* diskoen euskal xarma



Bere betiko gitarra barik parte hartu Etxartek disko honetan

Askotan, egunerokotasunean, gura barik, besteek ipinitako mugak sinesten ditugu, onartu ez arren; eta Euskal Herriko ekialdeko (Iparraldea deitzen badiogu ere) euskaldunen eguzki izpiei ez diegu gure egunerokoa argitzen uzten. Oraingoan gure leihoa parez pare zabaldu eta haien errainu eta doinuak Uribe Kostan zehar barreiatu gura ditugu *Eüskaldünak: A capella* eta *Hari Biru* diskoen bitartez. Elkarrek argitaratu ditu abesti bilduma eta Maddi Oihenarten bi lan horiek.

Eüskaldünak: A capella bildumak gure herrian, batez ere Iparraldean hain gogoko duten *a capella* alorrean abesturiko kantak batzen ditu, ahots zerutiar ez bestelako soinu

mozorro bako kantuak, hain zuzen. Besteak beste Iparaldeko kantari ezagunek hartu dute parte diskoan: Etxamendi eta Larralde, Dominika eta Niko Etxart, Robert Larrandaburu, Jean Bordaxar, Erramun Martikorena, Jean Mixel Bedaxagar, Imanol Larzabal, Mixel Etxeberri, Pantxoa Carrere, Maddi eta Celine Oihenart... Bestalde, oraintsu aipatutako Maddi Oihenart zuberotarrak ere *Hari biru* izeneko bakarkako lehen lana kaleratu berri du. Piano batek lagundutako kantu biluziak dira, eta letretan Itxaro Borda, Karlos Linazasoro eta Maialen Lujanbioren poemen oihartzuna antzeman daiteke, halere bi herri kanta ere sartu ditu Oihenartek. o

diskoak

Qualquer
Arnaldo Antunes
Biscuito Fino



Mugak ezagutzen ez dituen artista da Arnaldo Antunes. Liburuak idazten, zein abestiak konposatzen ondo baino hobeto moldatzen da. Carlinhos Brownekin *Tribalistas* disko arrakastatsuan parte hartu zuen. Disko berri honetan, bere ahots baxuak giro lasai eta intimista batera eramaten gaitu. Aspaldiko abestiak berreskuratu ditu, Maria Bethânia (*Lua vermelha*) edo Caetano Veloso eta Gilberto Gil (*As coisas*) musikariekin grabatutakoak, hain zuzen ere.

Eyes open
Snow Patrol
Universal Music



Aurreko diskoaren 2 milioi ale baino gehiago saldu zituen Eskoziako taldeak. Urrezko diskoa lortu zuten AEBetan (Eurpakoak izanda lorpen handia). Eyes Open disko liluragarria da, rock doinu eder bezain indartsuakaz publikoa erakartzen duena. Oraingoan ere, Garret Jackknife Lee izan da produktzioa lanetan. Abesti batean, gainera, Martha Wainright Rufusen arrebak kolaboratu du.

Maite gorroto zatitua
Neü
Baga-biga



Rock eta metalaren uztartzearen ondorioz sortu da Neüren musika. Estilo indartsu eta biziagaz, indarkeria, etorkinak, ludopatia, drogak, maitasuna, sexismoa dira, besteak beste, transmititu gura izan dizkiguten gaiak. Gure eguneroko bizitzan gertu dauzkagun egoerak islatu gura izan dituzte euren abestietan. Mikel Kazalisen gidaritzapean, Fidelenean estudioan burutu dute grabazioa eta nahasketa.



Ezker Batua/Aralar
herria ezkerrera ekarri

bozkatu

aralar **EB**
EzkerBatua
Berdeak

www.ezkerbatua-aralar.com

**HAU EZ DA
PROMOZIOA**

CANAL+
19'95 €/hilabetean



HAU BAI

**Orain
3 HILABETEZ
CANAL+
DEBALDE**



© April 2007. SOGISCABLE


abona zaitez ERDIAN
Goienkale 5, Plentzia. Telf.: 94 677 03 36

ASTRA

Promoción válida del 15/04/07 al 31/05/07 para nuevos abonados a DIGITAL+ en provincias concertadas. Coste de inscripción a 15€ (precio vigente 90,55€ impuestos indirectos incluidos). Grátis antena e instalación básica DDM, de cable, 1 toma de tv y dos conectores. Promoción no acumulable y condicionada al mantenimiento del contrato durante 18 meses y la mensuralidad de abono. Abonados que otorgan bajo con anterioridad deberán abonar 100€ en concepto de antena e instalación básica. Regalo de 1 partido de fútbol en PPV por periodo hasta fin tipo 04/07. Regalo de tres meses (mensuralidad de abono y 2 siguientes) del paquete CANAL+, si elige otro superior se descontará el precio de CANAL+ 19,95€. Consultar provincias en promoción y bases en www.plus.es/tecnologias

Hemen baino ez
DIGITAL+

Urdulizen

 **egin behar dugu**



Juan Olea Mentxaka
Urdulako Alkateburakoa
Hautagaria

www.eginbehardugu.com

eman batua  **EAI
PNV**
www.eai-pnv.com

etorri
eta
ikus!!

LIBURUDENDA

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13 / F. 94 467 42 41
ERADIO (Bizkaia)
Mobiila Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Egunkariak

prentsa
eta
aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

[liburuak]

Unibertsalak euskaraz

Tabucchiren lan bi itzuli dituzte Literatura Unibertsala bilduman, eta itzulgai berriak jakinarazi

Goi mailako literaturaz geure ama hizkuntzan gozatzeko aukerak gero eta gehiago dira. Literatura Unibertsala bildumaren zerrenda dagoeneko 127 literatur lanez osatuta dago. Antonio Tabucchiren (Pisa, 1943) bi lan izan dira bildumara gehitzen azkenak, *Oker tiki garrantzigabeak* eta *Porto Pimeko dama*, hain zuzen ere. Idazle italiar bikainaren bi kontakizun liburuok Fernando Reyk ekarri ditu euskara.

Literatura Unibertsala bilduma aspalitik urterik urte mamitzen eta hazten joan den ekimena da, auzo-hizkuntzetan sortzen diren literatur maisulanak irakurle euskaldunari helaraztea da bere helburu nagusia, eta bide horretan gaur egun

«Itzulgaien artean daude: Emily Brontë, Proust, Herman Melville, Lovecraft, Molière, Buzzati...»

EIZIE elkartearen eta Jaurlaritzaren laguntzagaz Elkar eta Alberdania argitaletxeek urtero literatur lan sorta ederra kale-ratzen dute euskaraz. Hurrengo urteetan plazaratzeko itzulpenen hautagaien aurtengo zerrenda aurkeztu berri dute bildumako arduradunek, eta 24 itzulgaiaren artean, besteak beste ondorengoak daude:



Antonio Tabucchi (Pisa, 1943)

Emily Brontë (*Wuthering heights*), Nadine Gordimer (*Burger's Daughter*), H.P. Lovecraft (*At the mountains of Madness*), Herman Melville (*Benito Cereno* eta *Billy Bud*), Flannery O'Connor (*A good man is hard to find and Other Stories*), Joris-Karl Huysmans (*A rebours*), Molière (*Le Tartuffe* eta *L'Avare*), Marcel Proust (*Du côté de chez Swann*), Arthur Schnitzler (Ipuin Antologia), Horacio Quiroga (Ipuinak), Fernando de Rojas (*La Celestina*), Leopoldo Alas Clarín (*Adios cordena* eta beste ipuin batzuk), Jose Cardoso Pires (*Balada da praia dos caes*), Dino Buzzati (*Il deserto dei tartari*), Andrei Platonov (Hon-deaketa), Anxel Fole (*A lus do candil*)... ○

liburuak



Begirada bat Kubari
Itziar Petxorroman
Elkar

Zer gertatuko da Fidel hiltzen denean? Trantsizioaren ordua izango da? Edo jarraipena? Itziar Petxorroman kazetaria Kubara joan eta hango jendeari galdetu egin dio, uhartearen egoera zein den ezagutu guran.



Beste eguzkia
Itziar Madina
Txalaparta

Asunenbordako Domingo artzain bakartiak etxaldea utzi eta Josefina bere gaztaroko amodioaren bila abiatuko da. Bidean dagoela, Alkabeherre jaioterria okupatu duen gazte talde bategaz egingo du topo. Ondo konponduko dira?

[kirola]

Getxo kirol markadunak, gorritxoak?

15 kirol taldek eta 12 Guraso Elkartek Getxo izenpean kirol bateraketaren alde egin dute



Bizkerre futbol taldeko emakumezko taldea ere Getxo markagaz lehiatuko da

Irailetik aurrera kirol esparru desberdinetako 15 taldeek Getxo izena eta kirol bakoitzaren irudia daukan logotipoa eroango dute, hala adosten dute Getxo Kirol udal erakundeagaz oraintsu sinatu duten hitzarmenean. Hitzarmena sinatu duten kirol taldeak ondorengoak dira: Getxo Rugby taldea, Getxo Saski Baloia, Getxo Arraun, Piraguisimo Getxo, Punta Galea Txirrindulari elkarte, Erromo Eskubaloia, Getxo Aixerrota Boleibol, Getxo Hockey taldea, Fadura Tennis elkarte, Padel Aixerrota, Getxo Igeriketa taldea / Waterpolo Fadura, Getxo Atletismo taldea, Getxoko Euskal Pilota, Getxo Surf taldea eta Bizkerre Futbol andrazkoen taldea. Taldeetako 5 izan ezik (errugbi, txirrindularitza, pilota, saskibaloia eta andrazkoen futbola), gainontzekoek Udalaren kolore gorria ere eroango dute jantzietan. Gorritxoak ezinenez ezagunak izango diren denborak zehaztuko du. Jantzi berrietarako Udalak 67.330 euro bideratuko ditu.

Egitasmoak bi aldeko helburua dauka, batetik udalerriko taldeen ariketa profesionala hobetzea eta bestetik *“hautzarotik kirola*

la jolas moduan, hezkuntzaren parte legez, ekintza ez lehiakor modura ikustea”, hala azaldu du Guzman Aranaga kirol arduradunak. Alde horri lotuta dago hitzarmenaren bigarren helburua, eta horregatik sinatu dute 12 Guraso Elkartek ere Udalagaz hitzarmena. Bigarren helburu horri dagokionez, hitzarmena sinatu duten taldeek Kirol Esko-

«Aurten 1.111 ume egongo dira kirol taldeen esanetara, eta horietatik 426 eskola esparrukoak dira»

letan parte hartu behar dute eta Eskolok datorren urtean ipiniko dira martxan. Hala, Lehen Hezkuntzako 1-3 maila bitarteko umeek “kirol anitzeko” jardueretan aritzeko aukera izango dute, eta 4-6 maila bitarteko Eskola Kirolen aukera izango dute. Horren ostean gazteek Eskolen luzapen bat litzatekeenean kirol anitzak egiten jarraitzeko aukera izango ei dute, edota bestela kirol talde federatu batean izena eman ahal izango dute. Aurten 1.111 ume inguru egongo dira taldeen esanetara, eta horietatik 426 haur eskola esparrukoak izango dira. ○

Garaizar

berrikuntzak

- igeltzeritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illaeta kalea 1 • ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda

350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82


ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC


- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETeko GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Lemoizen



egin behar dugu



Pedro Jesús Botejara Unda


Lemoizko Alkatezordea
Hautagaia

www.eginbehardugu.com

[elkarrizketa]

Jesus Maguregi > konpositorea

“Gerrako umea izan nintzen,
500 zenbakia hain zuzen ere”



Algortari buruzko makina bat pieza konposatu ditu Jesus Maguregi musikariak

Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrenaren harira eta Gerra Zibilean lekuko moduan bizitakoa oinarri hartuta, *El árbol roto* diskoa kaleratu du Jesus Maguregi konpositore algortarrak. Klasizismoaren arauetatik ihes egiten duen musika sortzen duela nabarmentzen du Athleticen jokalaria ere izandako musikariak. Autodidaktatzat jotzen du bere burua Maguregik eta musika bihotzetik ateratzen zaiola azpimarratu.

—Bonbardaketaren lekuko izan zinen.

—Orduan zortzi urte besterik ez neukan. Hegazkinak zelan etortzen ziren ikusi nuen eta horrenbesteko beldurra neukan etxe ondoko zuhaixka batzuen azpian sartu nintzela. Egiten zuten zarata izugarria zen. Egoera kritikoa zela ikusita, Frantziara zihor an *Habana* itsasontzian sartu ninduten. Gerrako umea izan nintzen, 500 zenbakia hain zuzen ere.

—Gogoratzen al duzu Algorta gerra aurretik?

—Paradisua zen niretzat. Horren inguruan ere konposatu dut. Baserriak osatzen zuten

gehienbat, baina ez ditut izenak gogoratzen. Berdea zen eta behi usaina zeukan.

—Belgikan ere egon zinen.

—Oso gogorra izan zen. Hasieran irtetea zen nire fantasia, baina amatu falta zitzaidala konturatu nintzenean negar batean hasi nintzen. Frantzian akanpaleku batean egon nintzen eta gero Belgikako familia batek hartu ninduen. Orain dela urte batzuk nire hango “ama” berriz ere ikusteko aukera eduki nuen.

—Han sartu zitzaizun musikarako grina, ezta?

—Bai. Piano bat ikusi eta jotzen hasi nin-

tzen. Niretzako musika ezinbestekoa da bizitzeko, oso ondo pasatzen dut-eta. Algortara itzuli nintzenean Miguel Gainzagaz klarinetea jotzen ikasi nuen. Musikoa izan gura nuen, baina Athleticen fitxatu ninduen...

—Athleticek?

—16 urte gaz. Atezaina izan nintzen Zarraz, 48-49 denboraldian. Futbola ere nire pasioa da, edo zen, horretan adinak ez du-eta parkatzen. Orain ez naiz ezta San Mamesera ere joaten, asko sufritzen dudalako. Barakaldon eta Venezuelan ere ibili nintzen futboleant.

**«Berdea zen gerra aurreko
Algorta eta behi usaina
zeukan»**

—Denetarik egiten duzu: koadroak mar-
goztu, liburuak idatzi, poesia...

—Gizartearen eta bizitzaren inguruan egiten ditudan gogoeten ondorio dira. Ondo dau-
dela esaten duenik badago, baina neuk ezin
dezaket horrelakorik esan. Edo bai!

—Berba eiguazu *El árbol roto* lanaren ingu-
ruan.

—Bonbardaketak eragin handia izan zuen
nigan eta lan hau konposatzera eroan nin-
duen. Ez dakit zelan egin nuen, baina irten
zitzaidan. Baliteke, gainera, udazkenean
Areetako Andres Isasi Musika Eskolan lau-
kote batek jotzea. Abesbatzen bat abesteko
prest egongo balitz...

—Zein da zure estiloa?

—Musika erromantikoa eta lasaia gustatzen
zait. Estilo horretan hainbat disko kaleratu
dut. Partiturak ere badituz eta sei sari irabazi
ditut bilbainadak konposatuz.

—Eta gogokoan daukazun musikariak?

—Mozart ia egunero entzuten dut, liluraga-
ria da. Beethoven ere izugarria da, baina
gizatiarragoa eta oldarkorra. Mozart, ordea,
erromantikoa da. ○

I

*Iñaki
Bítxitegia*

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[akabuko punte]

Esakere ➤ “Entzun ta gor, ikusi ta itsu”

Danok ezetuten doguz "hankak dekoz baia ezta mogiduten, besok dekoz baia eztau beharrik egiten" moduko igerkizunek. Esakera honek horren antzeko zeezer ekarten dosku burure: Nor da begik dekozena baia ikusten ez daune, belarrrik auki baia entzun ez eta agoa euki baia egin behar danean berba egiten ez dauena? Igarkizun errazik badau, hau da ba.

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran “Atsotitzak” bilduman topako dozue.

Gure **berbakere** 96

GURE AZENTU (XV)

Azkeneko berbakeretan aditzen atzizkik ikusi doguz apur bet, eta horrek atzizkikez hartuten daudezen azentukerak (*egon, égoten, égongo, egókeran, égote*, eta abar).

Horretariko adibide bakotzak forma bar deko bokalan eta kontsonanten aldetik, eta ez dogu topako forma bardiñe dekon beste berbarik. Baia ez da holan pasaten gure euskerako aditz (eta berba) danakaz: **forma bardiñe erakusten daude batzuten berba bik, eta desbardintasun bakarra azentu da**. Aditzen arloko adibidek ikusiko doguz lehenengo:

Aurreko Berbakere 88n ikusi gendun lez, *—te* atzizkik sortzen dauzen aditz izenak dekuz alde batetik, eta *—ta* atzizkik sortuten dauzen adizlagunek bestetik. Atzizki bi direz, eta formaz desbardiñek, eta aditz batzukez derbardintasun hori ez da apurtuten:

égote (batuaz egotea) / egónta (batuaz egonda)
ésate (bat. esatea) / esánta (bat. esanda)
ékarte (bat. ekartzea) / ekárta (bat. ekarrita)
érrete (bat. erretzea) / erréta (bat. erreta)
gástate (bat. gastatzea) / gastáta (bat. gastatuta)

Baia hori holan da azken bokala *-e*, *-o*, *-a* dauken aditzekaz, goiko adibidetan ikusten dan lez. Ostera azken bokala *-i* eta *-u* dauken aditzek bardiñek direz bokal eta kontsonante aldetik *-te* eta *-ta* atzizkikez doazenen, eta azentu dauke desbardintasun bakarra:

ikuste (bat. *ikustea*) / *ikúste* (bat. *ikusita*)
ibilte (bat. *ibiltzea*) / *ibilte* (bat. *ibilita*)
lótute (bat. *gelditzea*) / *lotúte* (bat. *geldituta*)
sikétute (bat. *sikatzea*) / *siketúte* (bat. *sikaruta*)

Danok yakingo dozuen lez, *-i* eta *-u* bokalan osten *-a* bat badator, *-e* bihortuten dogu Uribe Kostako euskeran (*txakurre*, *mákiñe*, *txori bet*, *katúez*,...), eta horrek egiten dau *-ta* atzizki bere *-te* bihortute goiko adibidetan bere (*galdu* *-ta* -> *galduíte*, e.a.). Eta kontutuen hartu *-tu* partizipioko aditz guztikez pasa leitela esan dogun bardintasun hau, ze *-tu* atzizki, bistan dau lez, *-u* letragaz amaituten da (baia *-tu* erako aditz batzukez aditz izena *-tute* egin beharren *-tze* egiten daude gure ingiruko euskaldun batzuk: *galduite* edo *galtze*, *lotute* edo *lotze*, e.a.). Eta nahiko luzetu gara gaurkoz... Hurrengo arten!

[nora**joan**]

DUE

Lokal berria Algortako bihotzean

Jabe ugariren eskuetatik pasa ondoren, Arkaitz eta Rubenen eskuetara heldu da Amezti kaleko lokal mitikoa. Martxoaren 15ean zabaldu zituzten ateak, taberna goitik behera berrizteko lan gogorra egin ostean. Azken orduko arazo txikiak izan arren, ondo baino hobeto gelditu zaie lokala, dekorazio moderno eta erakar-gariarekin. Rubenek ez zeukan esperientzia handirik ostalaritzan baina, denbora gutxian, erraz moldatu da tabernaren erritmora.

Pozik daude jendearen harrerarekin: *“Adin guztietako jendea etortzen da, 20 eta 40 urte bitartekoa batez ere”*. Diotenez, Algortako giroa berpizten ari da eta horretan lagundu nahi du DUEk: *“Asteburuetan azken urteotan baino jende gehiago dagoela ikusten da, giro polita dago”*. Hala ere, hau gora joatea nahi dute Arkaitzek eta Rubenek: *“Udala malguagoa izateak eta alkoho-*

kontzertuak... oraindino ez dute guztiz finkatu eskaintza zein izango den, baina jendearen proposamenei zabalik daude. Lokala handia da eta dantzatzeko eta lagun artean gustura egoteko aukera ematen du. Beraz badakizue, ez dago herritik alde egiteko aitzakiarik. ○

Ameztzi 8, ALGORTA
Tel.: 94 491 47 51

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

 gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador Goiezti



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
- Gauez dastatzeko menua
astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak

zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROLO PORTUA
Aritluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!





Amezti, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendi) T: 460 01 87
48990 GETXO

[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 - urtarrilak 19) Ezusteko ona hartu berri duzu; zukua ateraziozu, horrelakoak egunero gertatzen ez dira-eta. Jatetxe on hartara zoazte afaltzera, baina kontuz ibili, agian uste duzun baino gehiago hustu beharko duzue sakela.	OTSOA  (Urtarrilak 20 - otsailak 18) Arazo larri bat darabilzu buruan bueltaka. Pentsatu apur bat, konponbidea zuk uste duzun baino errazagoa da-eta. Noiz irakurri zenuen liburu bat oso-osorik? Liburu bat amaitzea ez da zaila, gustukoa aurkitzea da gakoa.	ADARRA  (Otsailak 19 - martxoak 20) Sentikor zabilta azkenaldian, eta horrek arazo asko sortzen dizkizu. Lasaitu apur bat. Bidegurutze garrantzitsuan zaude; beharbada, hausnarketa sakona egin beharko zenuke.
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Izerdia ateratzea gauza ederra da; zuk, ordea, ahaztu duzu dagoeneko hori zelan egiten den. Zure koadrilaren azterketa gainditzea ez da gauza erraza; zure bikotekideak pasako al du asteburu honetan?	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Zu ikusi orduko izugarrizko bekaizkeria sentitzen duen norbait bada; tentuz ibili. Ohi baino atseginago zaude aste hauetan. Zer gertatu da bada? Sekretu txiker bat al da?	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Besteei errua botatzea erraza da, baina horrek ez dizu irtenbiderik ekarriko, zezenari adarretatik heldu behar zaio-eta. Txantxak egitea oso atsegin duzu, baina besteek zuri egitean ez ezazu alda irribarrea.
GARIA  (Ekainak 19 - uztailak 18) Erabaki garrantzitsu bat hartu behar duzu eta ez dakizu zer egin: ba ideiak argitzea ondo etorriko zaizu. Jan eta lo besterik ez duzula egiten? Alper halakoa! Noiz hasiko zara hezur eta gihar horiek astintzen herdoildu baino lehen?	LASTOA  (Uztailak 19 - abuztuak 17) Jende berria ezagutzea polita izaten da, baina batzuetan lan astuna ere bada; ahalegina egin beharko duzu. “Laster arte” esan zenion, hilabeteak joan dira, eta oraindik ez duzu ikusi: ahaztuta egongo al da?	IRATZEA  (Abuztuak - 18 irailak 16) Beti besteen arazoak dituzu hizpide, marmarka ibiltzea gustuko duzu, eta burugogorra zarela ere badakite ingurukoek. Baina ez al daukazu lotsarik, Aitzurra? Marka guztiak hausten zabilta.
META  (Irailak 17 - urriak 16) Lagunei afaltzeko gonbita egin zeniele eta, erabat txundituta utzi dituzu. Ea hemendik aurrera bide beretik zoazen. Sarea botatzeak ez ditu segurtatzen arrainak harrapatuko dituzula, baina aukera hortxe izango da.	HAZIA  (Urriak 17 - azaroak 15) Gauza berriak arrotzak izaten dira askotan, baina hori ez da askorik luzatzen normalean, zorionez. Azazkalak hortzakaz moztea ez da ona, eta gainera, badakizu; ez al duzu otordu goxoagorik ezagutzen?	NEGUA  (Azaroak 16 - abenduak 20) Bikotekideak eta zeuk ez duzue itxura txarra ematen elkarrekin, baina hobetu ere egin daiteke. Usain ona zuelakoan erosi zenuen lurrin hori, eta orain, inguruko guztiek ihes egiten dute zure albotik.




mungia oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.


Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]



HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Lausengatuak, losintxatuak. 2. Neurri. Amore eman. 3. Lainoa, gan-dua. Tulioaren ikurra. 4. Adimentsuak. Galegoen aita. 5. Atzizkia. Kontsonantea. Gako. 6. Bokala. Gipuzkoako udalerria. 7. Mintzaira bakarra ezagutzen duena. 8. Atzizkia. Nor pluralean. Itsas arrain mota. 9. Atertu aditzaren oina. Deialdiak. 10. Akuri. Irakiten du.

Goitik behera

1. Eboluzioak, aurrerabideak. 2. Urteko hilabete. Estekatu. 3. Behargin. Bizkaieraz, omen. 4. Barazki mota. Zuhaixkaren adar. 5. Usain txarrak. Bostehun. 6. Lehen bokala. ... egin, guztiz ase. Nor pluralean. Euskal atzizkia. 7. Infusioa. Sumendiaren aho. 8. Aldel Ugazaba. 9. Astoen eginak. 10. (Fam.) Kimioterapia. Toki askotan, aulki.

Soluzioak

I	K	A	R	I	D	I	K	U	K
K	A	I	E	D	R	E	A	T	V
L	I	O	T	K	A	O	R		
A	R	A	K	A	B	E	L	E	
E	T	R	A	S	A	L	A	V	
O	K	A	K	T	I	O	K		
I	A	P	K	A	G	I	A	V	
M	T	A	B	R	O	L	A	N	V
I	S	I	E	T	S	I	Z	A	R
K	A	T	U	A	K	A	L	A	T

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Zarauztar peto-petoa
- Euskal filologoa
- Bertsolaria, ikerlaria...

> Aurrekoaren erantzuna: Pedro Subijana
> Irabazlea: **Uxue Martinez de Goñi (Getxo) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

•Argia astekariaren biru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



MANU URRETXUAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Portuko Zaharreko mojen ikastetxea 1928an

Argazkia ikastetxearen aurrean aterata dago, Algortako Karitate kalean (lehenago “Peligro” kalea zena). Ez da agertzen bertan irakaslerik, ez dakigu zergatik. Bestalde, data kontuan hartuta, asko hilda daude dagoeneko; idetifikatuta daudenetatik lau gutxienez bizirik daude eta, beharbada, baten bat gehiago: Fernando Zumalakarregi, Manolo Elorriaga, Juan Sagasti eta Manuel Urretxua, argazkia utzi diguna.

“Portuko mojen ikastetxea”, “Portuko mojak”, “Karitateko mojak”... horrela ezagutzen dira Algortan 103 urtean (1889-90tik 1991-92ra) irakaskuntzan ibilitako mojak, “Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul” ordenekoak. Hala ere, ikastetxearen benetako izena “Colegio Purísima Concepción” zen.

Portu Zaharreko ikastetxe hau, Maria Rosa Rogelia Cortina Aldekoa andrearen eskuzabaltasunari esker eraiki zen, “para parvulos pobres de ambos sexos del municipio” (Carlos Mª Zabala, Historia de Getxo). Guri bertako moja batek esan digu “Portuko arrantzaleen ume txiroentzat” izan zela hasieran. Dena dela doakotasuna mantentzea ezinezkoa zen eta lehen ikasturtea amaitu baino lehen, batzuk ordaintzen hasi ziren baina ikasgeletan bereizketarik egin gabe, guztiak nahasirik. ○

- 1. Ierroa:** Alejandro Martinez, Gabirel Saitua, Fede Amezaga, Fernando Zumalakarregi, Alfonso Arteta, Ignacio Urretxua, Iñaki Zugazabeitia, Enrique Aretxabala, Jose Mª Maguregi, Manolo Elorriaga.
- 2. Ierroa:** Pedro Pecaña, Fernando Gonzalez, Jose Saitua, Bautis Astorkiza, Victor Larrinaga, Juan Sagasti, (?), Ramon Isasi, Oregi.
- 3. Ierroa:** Bilbao, Gregorio Elorriaga, Saturnino Atejada, (?), Ignacio Eguzkiza, Alexander Elorriaga, Pedro Arrarte, Iñaki Olavaria, Jose Sagasti.
- 4. Ierroa:** Jaime Zarate, Manuel Urretxua, Alberto Arteta, Jose Luis Arteta, Teodoro Aguado, Francisco Gonzalez, Pedro Aguado, (?).

TXUMA MURUGARREN > musikaria

“Gauzak lasaiago hartzen ikastea gustatuko litzaidake”

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
De-sastre.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Katu zuria, katu beltza Emir Kusturicarena. Filmaren giro kaotikoa gustuko dut.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?
Ez ditut historiako pertsonaiak miresten. Bat aukeratzekotan, lanean ezkutuan ibili den eta oso ezaguna egin ez den pertsonaren bat esango nuke, Koldo Mitxelena adibidez.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?
Berriz egin ez, berehala nekatzen naiz gauzekin. Baina bidaia berri bat egitekotan Siberiara joango nintzateke duda barik. Bertan lurralde ezezagunak aurki daitezke oraindik.

Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzaizuke jardutea?
Zientzialaria izatea gustatuko litzaidake, astrofisikoa. Beti miretsi izan ditut horretan dihardutenak.

Zein da zure ametsetako bat?
Gauzak lasaiago hartzen ikastea gustatuko litzaidake.

Goiza ala gaua?
Gaua. Gorputza biziago izaten dut gauetz, ez dakit zergatik.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?
Lagunik gabe edo, hobe esanda, lagun girorik gabe.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Dena barkatzen dut, badakidalako gizakiak akastunak garela eta denok huts egin dezakegula noizbait.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?
Nafarroako Bortziriak eta Enkarterriak. Hango parajeak gustuko ditut. ◯

LABURREAN— Oreretan jaio arren, Sopuertan (Bizkaia) bizi da Txuma Murugarren. Euskal Filologia ikasi du eta literatura gertutik jarraitu izan du beti, nahiz eta musikaren munduan sartuta dagoen bete-betean. 1984ean hasi zuen bere ibilbidea, baina lehenbiziko diskoa 1991n kaleratu zuen, Sasoi Ilunak taldearekin. 2000tik aurrera bakarkako proiektuari ekin zion. Bere kantuetako letrak indar handia daukate eta abeslariaren nortasuna islatzen dute. Lau disko kaleratu ditu dagoeneko: *Nere leihoak*; *Hegazkinen arima*; *Gauak, neskak eta mailetak* eta *Nire anaiaren kotxe-ko argiak*. Prentsan, irratian eta hainbat aldizkaritan kolaboratzen du. Maiatzean bere musikarekin gozatzeko aukera izan genuen Algotan, Kantuketan zikloaren barnean.



Imanol Landa Jauregi
Getxoko Alkateleko Nafarrokaria